

...eta!
Kitto!

2018-11-23

1047 zkia.



Miguel Gallastegi
**100 urteko
Handia**



**Catalana
Occidente
Seguros**

Eibarko Txikito, 8
Tel. 943 200 908
Mobila. 610 422 179

emilio.toyos@agentes.catalanaoccidente.com

EMILIO DE LOS TOYOS
Erreg. zkia. C046815351532K



- Erantzukizun zibila
- Autoak
- Bizitza eta Jubilazioa
- Osasun aseguru
- Istripu banakako eta kolektiboak
- Arrisku anitzetarako: Familia-Etxebizitza, Dendak, Bulegoak, Eraikinak, Jabeen erkidegoak, Enpresa txikiak eta ertainak, PYMEak, Tailerrak

ASEGURUAK

martxoak 7, 8 eta 9

IV. GILDA LEHIAKETA



PARTE-HARTZAILEAK:

AKARA - ALBERTO - AMESTI - AMETSA - ARKUPE -
ASTELENA - BACOLEKU (URKIZU) - BAISI - BIRJIÑAPE -
CEPA - CHIC - DOS DE MAYO - GURIDI - KONTENT -
KOSKOR - KULTU - LAU BIDE - ONGI ETORRI -
SLOW - SUBEROA -

SARI BI

1 Herritarren saria: **150€**

Tabernetan bozketarako
kutxak eta orriak egongo dira.

2 Epaimahaiaren saria: **150€**

EPAIMAHAIKIDEAK:

Mireia Alonso - Josu Mugerza - Ruben Etxaniz

Bozketan parte hartzen dutenen artean
KANTABRIA JATETXEAN MENU BEREZIA
zozketatuko da **BI LAGUNENTZAT**.
Animatu zaitetz eta parte hartu!!!

Antolatzailea



Euskara Elkarte

Laguntzaileak



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Izena emateko azken egunak

Martxoak 7, asteazkena

EUSKARAREN TRANSMISIOA mintegia

IZEN EMATEA zabalik

www.etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus 943 20 09 18

- 08:45-09:00:** Akreditazio eta dokumentazioa.
09:00-09:15: Ongietorria.
09:20-10:05: "Nerabezaroan euskarari eustea. Zerk finkatzen du transmisioa?".
Paula Kasares. Soziolinguista eta NUPeko irakaslea.
10:10-10:35: "Arabarra, gaztea eta euskaltzalea... Bai! Eta zer?".
Unai Viana. Arabako Gazte Euskaltzaleak taldeko kidea.
10:40-11:05: "KOMUNITATEA, euskara biziberritzeko ardatza erdal eremuko ikastetxe batean: Gasteizko Ramon Bajoko ekimena".
Leire Diaz de Gereñu eta Isabel Santamaria.
Gasteizko Ramon Bajo ikastetxeko gurasoak.
11:10-11:35: "Ideia abstraktutik, sentimenduen adierazmenera".
Imanol Canales eta Garikoitz Lasa. Bilboko Ave Maria Ikastetxea.
11:40-12:00: "Praktika txikiak, bizipen handiak. Hizkuntza- praktikak aktibaziorako bidean".
Edorta Lopez Rey. AEK-ko Praktikatuz zerbitzuko koordinatzailea.
12:00-12:20: ATSEDENALDIA
12:25-12:50: "Ipar Euskal Herrian, zer berri? Transmisioa, ezagutza, erabilera, jarrerak, diskurtsoak... eta etorkizunerako erronkak".
Eneko Gorri. Biarrizko Herriko Etxea euskara teknikaria eta Mintzalasai elkartearen kidea.
12:55-13:40: "Ikasle etorkinak eskolan, euskararentzat (eta bestela) non dago kaltea?".
Amelia Barquin. MUNeko irakaslea.
13:40-14:25: MAHAINGURUA: Amelia Barquin, Unai Viana, Leire Diaz de Gereñu
Dinamizatzailea: JAIME ALTUNA.
14:30: AGURRA
14:35: BAZKARIA



Antolatzailea:



Euskara Elkarte

Babeslea:



Laguntzaileak:



ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belauztegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Miguel Gallastegi

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhua Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto! "k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luze hori gainditzen duten testuak mozteko esku-bidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MAKALEKO.- Sekulakoa, egundokoa. "Makaleko pasadia hartu eban Eibarrek orduan egunian".

MAKALIK.- Ahulduta, etsita. "Zaldunari besotik oraturik, makalikan Señora koittaua ukat eginda balitz bezela".

MAKALIK IBILLI.- Gaixotuta, ahulduta ibilli. "Juan daneko sei hillabetian makalik dabil".

astean esanak

"Odei Jainagak egindako marka lortu ondoren ezin ditut ahaztu bere 80 metrotara heltzeko gakoa izan diren bi pertsona. Cristina Larrea bere ama Gipuzkoako markarik onenaren jabe da xabalina zaharrenekin. Baina, kirolari hain lotuta dagoen bere familiatik kanpo ere, bada xabalinako plusmarkista berriari bere ezaguera guztiak transmititu zion beste emakume bat. Inma Urkiola izan zuen Odeik lehen entrenatzaile eta, berarengatik izan ez balitz, ezingo genuke horrela gozatu. Laguntasunik gabe, Odei ez zen tita bat izango"

(KAREL LOPEZ, KIROL ERREDAKTOREA)

"Kapitalismoak gaitasun handia du etsaiak neutralizatu eta sistemaren parte bilakatzeko. Hainbatetan izan gara horren testigu, baina 1968a bereziki nabarmena izan zen: 60ko hamarkadako eslogan politikoak eslogan komertzialak bihurtu ziren handik urte gutxira. Cadillac auto konpainiak, esaterako, bere egin zuen Bob Dylanen "garaia aldatzen ari dira" esaldia. Gazteak alderdi politikoetan, enpresen zuzendaritzetan eta editorialetan sartu ziren. 1968koa lehen altxamendu ez iraultzailea izan zen, eraginik gabekoa. Agian baten bat ahaztuko dut, baina azken iraultzak Kubakoa eta Txinakoa izan ziren"

(RAMON GONZALEZ FERRIZ, KAZETARIA)

"Orain dela 30 urte nerabeak ez ziren lonjetara joaten. Fenomeno hori agertu zenean, erakundeek, oro har, ez zieten aparteko kasurik egin; bizilagunen kekek azaldu direnean bakarrik. Eta bustiko ez zaren leku epel bat edukitzea zoragarria da eskolara piper egiteko. Erakundeek diote han barruan gertatzen dena pribatua dela, eta ez dute esku hartu nahi. Hori aldatu egin behar da, ezinbestean. Martxan jartzen diren politikan asko igartzen da politika horiek planifikatzean gobernuak norekin egin duten lan. Adingabeentzako politikak osatzean, haiek ere erabakietan parte hartu behar dute"

(JAVIER PEREZ HOYOS, GIZARTE HEZITZAILEA)



IMANOL MAGRO

Konplizeak gara

28 egunean behin Bahri Tabuk saudi arabiarreko karga ontzia Bilboko portura iristen da. Bertan, beste material batzuekin batera, lehergailuak kargatzen ditu. Armak eta bonbak. Arma horiek, besteak beste, Euskal Herrian eta euskal enpresek ekoizitakoak dira. Gurean, tamalez, ondo dakigu bonbek hil egiten dutela, eta ontzian kargatzen dituzten horiek Gernikan erori zirenak edo ETAk jarritakoak bezalakoak dira. Nazioarteko erakunde askok Saudi Arabia jotzen dute Yemengo herria jasaten ari den bonbardaketen erantzule. Itsuak, edo nahita ikusi nahi ez duenak bakarrik, ez luke harremanik ikusiko. Bonba horiek Bilbotik irteteak konplize bihurtzen gaitu. Ez du balio eskuak, eta kontzientzia, garbitzea aitzakia merkeekin. Aitzakia merkea da, adibidez, portuen inguruko eskuduntza kontu batek eragozten duela garraio horien aurka gehiago ezin dela egin esatea, ez agintariei ezta herritarrei ere. Nahi izanez gero badago oztopatzerik. Portuko agintariek, era berean, ez dute elkarrizketarik onartzen azalpenak eskatzen zaizkienean. Hobe gaia ez ukitu. Badago arma enpresa handien jarduna justifikatzen duenik. "Zerbait ekoitzi beharko dute?", diote, beste ezer ekoizterik ez balute bezala. Eibarren beste inon baino hobeto dakigu arma enpresek euren jarduna alda dezaketela. Bere garaian krisiak eragin zuen industria aldaketa hura; egun izpiritu bakezaleak egin beharko luke. Ezin esan bake garaietan bizi garela gu garenean heriotza esportatzen

Aholku Batzorde Juridikuak Errebalko auzixan Udalak hartutako erabagixa berretsi dau

Aste honetan jakiñarazi dabenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikuak berretsi egin dau Errebalko biharren kontratua Dragados enpresarekin eteteko Udalak hartutako erabagixa, hori egitteko argudio guztiekin bat datorrela gaiñeratuta: "Kontratua bertan behera lagatziaren kulpia eraikuntza-enpresarena da, ez dabelako bete, eta horrek Udalarari eragin detsazen kalte-ordaiñak pagau biharko detsaz, gaiñera".

Aholku Batzorde Juridikuaren ebazpenaren barri jaso eta gero, Arcadio Benitez Obra ziñegotzixa pozik azaldu da: "Udalaren prozedura zuzena zala erabat siñestuta egon arren, batzordiak gure argudio guzti-guztiak berretsi izanak lasaittu egitten gaitu". Aholku Batzorde Juridikuaren aldeko irizpenak, bestalde, Errebalen egitteke dagaizen lanak kontratatzekeo tramiatik hasteko eta lanak lizitaziñora etaratzeko bidia zabaltzen detsa Udalarari.



asteko
850.000
datua

euro inguru erabiliko dittu udalak Astelena frontoiko eraikiñaren fatxadia konpontzeko. Udal Finanziaziñorako Foru Fondoak (FOFIM) egindako kalkuluaren arabera, Eibarko Udalak millioi 1 eurotik gora bueltau bihar zetsan Gipuzkoako Ogasunari, baiña Madrillen PP-EAJk hitzarmena siñatu dabela eta, ez dau dirua bueltau bihar eta lan horretarako erabiliko dabe.

Gaztiendako formaziñua lantzeko hiru taillar antolatu dittue Debabarrenian

Astelehenian hasi ziran Txertatu Merkatuan egitasmuaren baitan Debabarrenian antolatu dittuen hiru ikastaruetako bi, bat pintura arlokoa eta bestia, barriz, sukaldaritzaren inguruak. Hirugarren ikastarua biltegiak izango da eta hori martxuaren 5ian hasiko dira emonten, Elgoibarko IMHn.

Martxan dagaizen bi taillarrak Eibarko Oiñarrizko Lanbide Heziketa Udal Institutuan egitten dihardue. Debegesatik azaldu deskuenez, "asteleheneko aurkezpen saiuetara 17-24 urte bittarteko 18 gazte gerturatu ziran. Eibarkuak ez eze, Elgoibar, Soraluze eta beste herri batzuetakuak be etorri ziran. Le-

hen fase batian, bakarka zein taldean jardungo dabe biharrian eta, ekañera bittartian, gaztiak lanbide bat ikasteko, euren lanprofila lantzeko eta enpresetan praktikak egitteko aukeria izango dabe".

Taillarrak hasitta badagoz be, oindiok toki batzuk badagoz eta, horregaittik, gazteren batek interesa badaka izena emon leike: 16-30 urte dittuenendako formaziño saiuk dira, ikasten ari ez diran gazte langabetuendako eta antolatzaillien asmua gaztien motibaziñua lantzia eta autoestimua areagotzia da. Informaziño gehixago nahi dabena edo izena emoteko 943 82 01 10 telefonora deittu leike edo, bestela, idazkaritza@debegesa.eus helbidera idatzi.





Gaur itxiko dabe Beherapenen Azokia

Eguazten goizian zabaldu eben Toribio Etxebarria kalia Neguko Beherapenen Azokia. Eibar Merkataritza Gune Irekiak antolatzen daben "factoring" edo azokak gaur beteko dau hirugarren eta azken eguna eta 20:00etan itxiko dabe. Merkealdixen azokan 30 bat dendak hartu dabe parte, "kalidazeko produktuak oso merke eskintzeko". Bestalde, azokaren inguruan hainbat jarduera berezi antolatu dittue, "jendia animatzeko eta azoka inguru girotzeko". Eguaztenian 'Granujas a todo ritmo' taldekuak eskindu eben ikuskizuna eta gaur, 18:00etan, 'Musgoso Band' soul taldiak kontzertua emongo dau.

Banatu dogu Aratostietako lehiaketako sarixa

Aurreko asteko eguaztenian egin genduan ...eta kitto! astekarixaren Aratoste lehiaketako zozketia eta Eneko Illarramendiri egokitu jakon sarixa. Horren berri emoteko albistia gure webgunian argitaratu eta irabazlia segiduan ipiñi zan gurekin kontaktuan, sarixa noiz eta zelan jaso bihar eban galdetzeko. Argibidiak emon eta hurrengo egunian etorri zan sari billa bulegora Eneko eta, argazkixan ikusten dan moduan, pozarren hartu zittuan oparixak: argazkixa egitteko jantzi eban ...eta kitto!ren kamisetia aukeratu eban berearendako eta holako beste bat eruan eban beste baten bateri oparitzeko asmuarekin. Zorionak eta hurrenguan be animau parte hartzera!



autuan



ZAINZAILLIENDAKO DOAKO TAILLARRA

Gipuzkoako Minbizixaren kontrako alkartiaren eskutik, datorren eguaztenian doako tailarra egingo da Eibarren. Menpekotasun edo desgaitasunen bat dakenak zaintzen dittuenendako antolatu daben saiuak "Norbera zaindu besteak zaintzeko" izenburua izango dau eta zainzailliak daken garrantzixaz eta euren osasunaz jardungo dabe, bestiak beste. Matia Fundazioko Nerea Manterola psikologuak hitzaldixa emongo dau eta, jarraixan, praktiak egitteko tartia egongo da. Tailarraren bigarren zatixan, barriz, Udaleko Gizartekintzako kidiak emongo dabe hitzaldixa, urtarrillaren 1ian indarrarian sartu zan foru dekretu barrixaren inguruko informaziñua eta laguntzeri zelan eragiten detsen azaltzeko. Tailarra doan da, baiña aurretik izena emotia eskatzen dabe, 943 202494 telefono zenbakira deittuta (goizez).

PUBLI RESA
objeto publicitario

publiresa@publiresa.com

Armagin, 3-5 beheak

- merchandising
- serigrafia
- lanerako erroa

943 701 497 / 615 799 419

Lehen jaunartzerako eta ezkontzetan erresak eramateko JANTZIAK

ume eta gazte
Kopina
 moda

kopinamoda
 San Agustin, 3
 943 204181

Jaunartzeak 2018

ALEX BERASATEGI | ARGAZKILARIA

Mugikorra: 633 118 355 Web-a: www.alexberasategi.com

San Frantzisko 54, Behea - Elgoibar -



IDURRE IRIONDO

Josu Mendicute izango da 2019ko Udal Hauteskundietarako EAJ-PNVren alkategaixa

Eibarko Uri Buru Batzarrak astelehenian aditzera emon ebanez, herriko jeltzalien batzarrak holan aukeratuta, Josu Mendicute Rodríguez izango da 2019ko ekaiñaren 9xan egingo diran Udal Hauteskundietarako EAJ-PNVren alkategaixa. Josu Mendicute (Eibar, 1987) Ikus-entzunezko Komunikaziñuan lizentziatua da eta hauteskundiak egitten diranerako 32 urte izango ditu. 2015. urtiaz geroztik alderdi jeltzaliaren bozeramaillia da Eibarko Udalian eta, horrekin batera, Iñigo Urkulluk 2013an Lehendakari kargua hartu ebantik aholkularixa da legebiltzarrian.

Oindioi ikaslia zala ekin zetsan biharri, gauza bixak aldi berian eginda. Hautagaixaren aurkezpena egin eban Eduardo

Zubiaurrek esan ebanez, "Mendicute hainbat komunikabidetan jardundakua da eta herriko alkarte askotan ibilli da parte hartzen: Eibarko Musika Bandan, Ustekabe fanfarrean, Auzokoak alkartian, Errebal plataforman, ...eta kitto! Euskara Elkarte- an eta Eibar.org alkartian, bestiak beste. Udalian, barriz, Kultura, Euskara, Obrak, Hirigintza eta Ingurumen batzordietan eta Musika Eskolaren patronatuan lanian jardun dau, 2015az geroztik udalian jeltzalien bozeramaillia izatiaz gain".

Hautagaitza ezagutzera emon ondorengo lehen hitzordua martxuaren 1ian izango dau Mendicutek, egun horretan egingo dan Hirigintza Foroan bere asmo nagusixenetako batzuk aurreratzeko mo-



duan izango da-eta. Mendicuterekin batera beste bi eibartarrek jardungo dabe saian: Ana Oregi, Ingurumen eta Lurralde Politika sailburu ohiak eta Ignacio Alcalde, Metropoli Fundazioko Presidenteordiak.



Alkartasuna azaldu detsenei eskerrak emon nahi detsez Alfako bihariñak

Alfa taldeko bihariñak lanpostuen aldeko burrukan segitzen dabe eta barixakuan egindako manifestaziñuan bihariñeri alkartasuna azaldu nahi izan zetsan jende morduak hartu eban parte. Zapatuan, barriz, Ipuruan jokatu zan partiduan, 83. miñutuan "Alfa ez itxi" idatzitta zekan txartel gorrixa etara eban publiko gehixenak, bihariñak egindako eskaeriari erantzunda. Izan be, orduan egunian 83 egun betetzen zittuan bihariñen grebak. Jendiaren erantzunarekin pozik, bihariñak euren esker ona azaldu nahi detse une latz honetan alkartasuna eta babesa azaldu daben guztieri.

Kaleratze bat salatzeko alkarretartzia

LAB sindikatuak deittuta, konzentraziñua egin eben aurreko asteko egunian Eibarko El Corte Ingles parian. Sindikatuak salatu dabenez, dendako bihariñ bat umia zaintzeko eszedentziatik bueltan kaleratu eben eta, epaitegixan salaketia aurkeztu arren, kaleratzia ez dabe atzera bota eta epaiketia martxuan izango da. Sindikatuko ordezarixen berbetan, "holakuak behin eta berriz errepikatzen dira El Corte Inglesian. Umiak zaintzeko lanaldixa murriztia edota eszedentzia baimenez gozatzia langille guztiak daken eskubidia da eta legiak babesten dau. Hailanda be, Eibarko El Corte Inglesian eskubide horretaz baliatu diran andrak kaleratzeko aprobe txau dabe".



Gardentasuna eta herritarren parte-hartzia sustatzeko atala udalaren webgunian

Eibarko Udalak 'Gobernua Zabalik: gardentasuna, herritarren parte-hartzia eta datu irekiak' izeneko atarixa zabaldu dau bere webgunian (www.eibar.eus), udal gardentasunari lotutako informaziñua eta internet bidezko komunikaziñua hobetzeko asmuarekin.

Mikrosite barrixaren aurkezpena aurreko astian egin eben eta, alkatiak esandakuaren arabera, asmua udalaren egitura herritarrengana gerturatzea da eta, alkatiaren berbetan, "eritzi-za emoteko kulturria daukagu, baiña parte-hartzeko kulturara aillegau bihar gara". 2015ian Gipuzkoako Foru Aldundiko 'Gipuzkoa Irekia' izeneko plataformara batu zan Eibarko Udala eta oin beste pauso bat emon dau, "gardentasuna bermatzeko", Ana Telleria Ogasun ziñegotzixaren berbetan. Erakundiari, antolamenduari, plangintzari, ekonomixari, aurrekontuerei eta beste hainbaten inguruko datuak eta informaziñua batuko dittue.



Aurreko astian aurkeztu eben Udalaren informaziñua ezagutzera emoteko martxan ipiñi daben atari barrixa. **Ekhi**



Lezeta Abeletxe basarrira juateko bidia itxitta, luperixiagaittik

Azken hilliotan bota daben eurixak kaltiak eragin dittu toki askotan, baitta Eibarren be. Martitzenian AP-8 autobidia behin-behiñian moztuta egon zan Eibarren eta Azittain inguruan luiziak egon ziran. Lezeta Abeletxe basarrira juateko bidia, barriz, martitzenaz geroztik itxitta dago eta, Erisono industrialdera juateko errepidetik (Teknikerrera doian errepidetik, hain zuzen be) begiratuz gero, ederto ikusi leike bidia moztia eragin daben luperixia. Andirao Eibarko basarritarren alkarteko

Angel Gisapolak eguaztenian azaldu zeskunez, bezperatik ziharduen bidia garbitzeko biharrian: "Atzo (martitzenian) jakin genduan zer pasau zan, Lezeta Abeletxe mutillak deittu zestan-eta, baiña hortik aurrera ezer gitxi dakigu, bidia garbitzen diharduela eta itxoin egin biharko dala". Udaleko Zerbitzu sailak eta Udaltzaiñak be hori besterik ez dakixe, bidia garbitzeko biharrian diharduela. Bixen bittartian, Erisonora doian errepidian hainbat hesi ipiñi dittue.



Funeraria-Ehorzetzeta Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



Eibar Coworking
 Informazio saioa

“UDAKO IKASTAROAK YORKEN, MANCHESTERREN ETA LIVERPOOLEN”



EK
 Euzko Elkartea

Zure seme-alaba ingelesaz gozatzeko leku aproposaren bila zabilta?

Agian ingelese ere trebatu nahiko zenuke?

eibarcoworking.com



Otsailaren 28an 18:00etan
Eibarko Txikito, 8 GERTURATU!
eibarcoworking@gmail.com
 688 734 292

Euskal kamaraden arteko solasaldia



“Euskeraren biziberritzeari bultzada emateko antolatutako ekimena da Hamaika Berbaldi”. Horrela aurkeztu zuen egitasmoa behintzat Jokin Bergara moderatzaileak martitzenean Portalean egin zen hizketaldian. Bost hizlari jator bildu ziren mahai-inguruan: Serafin Basauri, Luis Alberto Aranberri ‘Amatiño’, Leire Narbaiza, Nerea Barruetabeña eta Beñat Laskurain. Bost belaunalditako ordezkariak, euskerak Eibarren izan duen bilakaeraren ikuspuntu pertsonala eskaintzeko. Hertzainak taldeari esaldia lapurtuz, ‘Nola aldatu diren gauzak, kamarada!’ galderatik abiatu ziren bostak euskeraren gaineko gogoetak egiteko.

**- ‘Nola aldatu diren gauzak, kamarada!’
Zer aldatu da zuen ustetan?**

SERAFIN: Gaur egun jende gaztea euskal hizlaria dela ikustea harrigarria da, baina erabileran motel doa. Gazteen eta Akebairen indarrez bizkortzen ez bada, gaizki ikusten dut etorkizuna.

AMATIÑO: 20 urte inguru nituenean kontzertua antolatu genuen eta baimena eskatu beharra zegoen. Abestien letra eraman behar zen gaztelerara itzulita. “*Ésta es la traducción?*”, esan ziguten. Eta guk, “*es el Padre Nuestro del Padre Madina*”.



Serafin Basauri

Abesten hasi eta, “*no me haga trampas!*”, eurek. Zeozer aldatu da ba egoera!

LEIRE: Hertzainak taldearen abestia entzun nuen lehen aldian Debako taberna makarra batean negoen. “*Zer da hau?*”. Euskaraz kantatzen zebiltzan. Ordura arte ltoizek bakarrik egiten zuen musika modernoa. Aldaketaren zantzua izan zan. Ordutik gauzak aldatu ziren, baina... baina!

NEREA: Euskaraz ikasteko gaitasuna izan dugu eta gure gurasoek ez. Euskara ikasteak gauzak aldatu ditu lan egin edota eza-gutzaren bidean.



Luis Alberto Aranberri “Amatiño”

BEÑAT: Ni gaztea naiz oraindik, baina horrelako mahai-inguruak garrantzitsuak dira uste dut gazteek atzean egon den lanaren kontzientzia hartzeko.

- Serafin eta Amatiño, zuen gazte denboran nola bizi zen euskera kalean?

SERAFIN: Guk normal egiten genuen, koardilan behintzat. Erabilera tokiaren arabera zen, Legarre aldean euskeraz jolasten genuen, eta Jardinetan, Ardantzan eta behealdean euskeraz egiten zen. Erdialdean gutxiago. Eskolan erderaz egiten genuen. 17 urterekin beharrean hasi eta beste errealtate batekin topatu nintzen. Tailerretan euskeraz egiten zen. Zergatik? Gure belaunaldia baino 5-10 urte zaharragoak zirenak euskaraz bizi zirelako.

AMATIÑO: Nik ez nituen Serafinek izan zituen nagusiak eduki. Eibarren ez neukan lehengusu euskaldun bat ere, eta Buenos Aires eta Zarautzen bai ordea. Ez nekien lagun batzuk euskaldunak zirenik 15 urte bete arte. Etxean euskeraz egiten genuen, beti jakin izan dut euskaraz idazten eta irakurtzen, baina kalean eta ikastetxean erderaz egiten genuen.

- Bi belaunaldi salto eginda, zuek zergatik erabaki zenuten egunero euskaraz bizitzea?

LEIRE: Euskalduna bazara eta hori sentitzen baduzu, naturala da. Gauza pare bat gertatzen dira orain. Umeekin adin batera arte egiten da euskaraz, gero erdaraz. Bartzuetan ez dagoelako gaitasunik, koskor-

tzen direnean zerbait azaltzea zaila egiten zaielako gurasoei. Hobetzeko ezer egin ez delako da hori. Lasaitu egin garela uste dut. "Umea D eredura eramaten dut", "euskaraz egiteko esaten diot"... baina ez dago erlaxatzeko arrazoirik.

NEREA: Natural irtendako erabakia da. Txikitari ikastolan euskeraz egiten nuen, gurasoei ere bai... gero nerabezaroan erderara jotzen dugu, baina euskerara bueltatu gara naturalki batzuk. Askok erderaz egiten dute, baina nire inguruan egoera ez da hain txarra. Ni gai naiz gauza gehienak euskeraz egiteko.

- Emakumeen artean euskeraren erabilera handiagoa da orain?

NEREA: Ikusten da baietz, orokorrean. Gehienek euskeraz egiten digute neskei, nahiz eta eurak erderaz aritu.

LEIRE: Moda dela esango nuke, eta badauka zerikusia generoarekin. Lehen pixka bat fina izateko erderaz egin behar zela zioten. Gazteleraz ondo egiten ez zekien zenbat eibartarrek egin du erderaz? Lehen mutilak etxean nekazari zebiltzan eta emakumeak feriara joaten ziren. Erdera ikasi behar zuten nahitaez. Fina izatearen ton-takeri hori oso sartuta zegoen Eibarren. Dirua zegoenean, baserritar-kaletar afera... ez zen moda kontua bakarrik.

- Kaleko hizkera galtzen ari da Eibarren?

SERAFIN: Eibarko euskera bizirik dago, moteltxo baina bizirik. Etorkizunean eibarre-
rak behera egingo du eta batuak gora. Gauzak ondo badoaz behintzat.

AMATIÑO: Teorian, euskalkiak galdu egingo dira epe luzean.

NEREA: Galdu ez, baina hika ez da erabiltzen gazteen artean. Gure seme-alabei gure berba egiteko modua erakutsiko diegu.

BEÑAT: Nik hika ez dakit egiten, ez dut jasoa. Euskerarekin harreman bakarra eskolan dutenek batua bakarrik egingo dute eta normala da.



Portaleko areto nagusian bildutako jendeak jakin-min handiz jarraitu zuen solasaldia. Ekhi Belar

LEIRE: Nik nahiko nuke Serafinen moduan berba egin, baina ezin. Belaunaldiz belaunaldi galdu da hizkera hori. Pena emango lidake Eibarko euskara galtzeak, baina ez nau arduratzen hibrido bat edo batua erabiltzen bada. Euskañola da arriskua. Esaldi bat euskeraz egin eta txistea, gramatikalki zaila dena, erderaz egitea. Jendea ez da kontziente ez dabilela dena euskaraz egiten.

AMATIÑO: Ez dut maltzurra izan nahi, baina hori da Akebai.

- Zeintzuk dira iraupenari eusteko gakoak izan daitezkeenak?

SERAFIN: Zaila da. Euskeraz egiten jarraitzea, esango nuke. Kontzientzia pizten denean, euskera sentimendu moduan hartzen duzu. Erabilerak egiten du sentimendu hori.

AMATIÑO: Guk euskaraz egiten dugu euskaldun sentitzen garela eta hori falta zaie euskera eskola-hizkuntza moduan hartzen dutenei. Euskerak ez badu bihotzik, ez du balio.

LEIRE: Gauza asko dago egiteko. Teknologia berriei ez dugu euskera erabiltzen eta munduari euskeraz gabiltzala erakusteko balio du horrek. Ez dute guregatik egingo, guk egiten ez badugu. Ezin da onartu alkateak euskaraz ez jakitea, norbait Lehendakari izan arte itxarotzea euskera ikasteko. Borrokalari ez bago, agur!

- Nola ikusten duzue euskera hemendik 25 urtera Eibarren?

SERAFIN: Miraririk ez badago, herri erdal-dunagoa ikusiko dugu, baina milagroak ere gertatzen dira. Gazteak indartsu datoz eta euren esku dago, baina zaila ikusten dut. Hizkuntza gutxitua da euskera eta gerra aurretiko gaitza da hori.

AMATIÑO: Serafinekin bat nator euskara gutxitu egin dela. Gauza askotarako euskara erraza behar da. Irakurlearengan dago muga askotan. Gauza bat da euskeraz jakitea eta beste bat errekurtsioak edukitzea.

LEIRE: Orain dela 25 urte herri askoz euskaldunagoa egongo zela espero nuen. Serafinekin nago, ez badiogu gure ganorabakotasunari buelta ematen, akabo. 25 urte barru horrela bago, ez dago txarto.

NEREA: Guraso eta heldu izango garenon esku dago 25 urte barru Eibarren euskera erabiltzea. Gero eta gehiagok jakingo dugu euskeraz egiten. Horrek ez du erabilera bermatzen, baina bultzatu daiteke.

BEÑAT: Nahiko positiboa naiz. Egoera ezin-go da gehiago okertu. Urte batzuk barru denok jakingo dugu euskaraz egiten eta ez dugu erderara jo beharko. Kontzientziaren kontua izango da gakoa. Nik behintzat konpromezua daukat eta nik ez badut egiten, nork egingo du?




Leire Narbaiza



Nerea Barruetañe



Beñat Laskurain



PEDRO ARRIOLA: "Eskultura eta umeen jolasak".

Gita, bizitzako gorabeheren gaineratik

Munduko mendi altuenak ditu Nepalek, bete betean hartzen du Himalaia mendikatea, baina herrialdearen lautadan jaio zen Gita Dulal, Haribhabanen, Sarlahiko distrituan. Landa eremua da, ez du zerikusirik Londresekin, baina Ingalaterrako hiriburutik ailegatu zen Euskal Herrira. Bidea, ordea, ez zen batere eroso izan. Lehen urteetako egonaldia ere ez. Orain bere etxea da Eibar.

Umezurtz urtebete eta erdirekin

Anaiekin eta aiton-amonekin bizi izan zen Gita Nepal. *“Urtebete eta erdi nituenean gurasoak hil ziren eta batetik bestera ibili nintzen, anaiak joaten ziren tokiaren arabera”*. Lau anai ditu eta eurek zaindu dute arreba txikia. *“Bizitza aurrera ateratzeko hara eta hona ibili dira, baina orain ondo daude”*. Dubain dauka bat eta beste hirurak Nepal daude.

Erlijio ugariarekin elkarbizitza

Hindua da Gita eta hori argi uzten du bere izenak. Hinduismoaren testu sakratua da Bhagavad-gītā eta Krishna eta Arjunaren arteko elkarriketa batzen du. Nepaleko biztanleriaren %80,6 hinduista da, baina hainbat erlijiotako jendea bizi da eta elkarbizitza baketsua dute. *“Nepalen tamangak, sherpak eta beste hainbat herri-tribu bizi dira”*.

Aama eta ama

Ama izateko etorri zen Gita Euskal Herrira. *“Senarra Londresera joan zen ikastera. Nepalen ere ikasi eta lan egin zuen, baina bere hezkuntza osatzea nahi zuen. Urtebete eta erdi geroago berarekin joan nintzen. Londresen ikastea garestia zen, ez genuen lanik aurkitu, une txarrak pasatu genituen eta nire senarraren bisatua hiru hilabete amaitu behar zen”*. Egoera horretan, etxera bueltatzea pentsatu zuen Gitak, Nepalera. Bakarrik. *“Baina azken unean, joan baino egun bi lehenago, ezagun batek esan zigun Espainian umea edukiz gero nazionalitatea lortuko nuela”*. Gezurra zen. Hala ere, ama egin zuen Euskal Herriak. Edo aama, nepalera esaten den bezala.

Kamioian izkutatuta Parisera

Lagunaren aholkua jarraitze-ko Ingalaterratik Euskal Herriraino bidea egin behar zuten



Eibar bere etxea dela sentitzen du Gitak. Ekhi Belar

Gitak eta senarrak. Kontakua egin, *“bakoitzak 700 euro ordaindu”* eta lortu zuten garraioa. Kamioi batean izkutatu ailegatu ziren Parisera. *“Gau osoa egin genuen han beste hainbat lagunekin. Komunera joan gabe, ezer jan eta edan barik, eta haurdun”*. Parisera heltzean bidaiako eta bizitzako une erabakigarria iritsi zen. Egoera oso arriskutsua zen:

“Bilbora etortzeko autobus-txartela geneukan, baina pasaportea eskatuz gero harrapatu eta gure herrialdera bidalko gintuzten. Eskatzearekin egon ziren, baina azkenean beste batzuegana jo zuten”.

Euskerarekin trebatzen

Hematologiako ikasketak egin zituen Gitak, baina ikasteko grina dauka oraindik. Euskal Herrira iritsi eta berehala EPAn sartu zen eta euskerarekin ere trebatu da. *“Gaztelania arin ikasi nuen, nahiz eta hasieran ‘hola’ zer zen ere ez jakin, baina euskera ez da hain erraza”*. Pozik dago Eibarren, bere etxea da. *“Iaz Nepalera bueltatu nintzen, pozgarria izan zen, baina hona itzuli nahi nuen”*. Senarra eta biak lanean daude, eta semea eskolan. *“Berak bai egiten duela ondo euskaraz, andereñoak ere esaten digu”*.

जननी जन्मभूमिश्च स्वर्गादपि गरीयसी

janani janma bhoomischa
shorgadapi gariesi

Argia ematen dizun ama
eta zure jaiotza-tokia zerua
baino gehiago dira

32'3 millioi euroko aurrekontua onartu dau Udalbatzak

Eguazten arratsaldian egindako bilkuran, 2018. jardunaldirako Aurrekontu Orokorrari hasierako onspena emon zetsan Eibarko Udalbatzak, PSE-EE eta Eibarko EAJ-PNVren aldeko botuekin. Eibarko EH-Bilduko ordezkariak, barriz, kontrako botua emon eben eta Irabaziko ordezkariak abstenidu egin zan. Urte honetarako udal aurrekontua 32.357.193 eurokoa da eta, 15 eguneko epian iñork ez badau erreklamaziñorik egitten, behin betiko onartuko da.

2017ko jardunaldixarekin konparauta, 220.000 eurotan jaitsi da udal aurrekontua, diñuenez *"gastu arruntaren kudeaketan erabillitako zuhurtasunari esker"*. Aurrekontuaren barruan, 5'5 millioi inguru dagoz Eibar eraldatzeko proiektuetan gastatzeko. Herritarrak gehixen eskatzen dittuenak kontuan hartuta, diru hori batez be irisgarritasuna hobetzeko proiektuetan, gune libriak txukuntzeko lanetan, oiñezkuen segurtasuna hobetzeko aktuaziñuetan, ja-sangarritasunaren aldeko egitasmuetan eta zerbitzu publikuen eskintza hobetzeko proiektuetan erabilliko dabe.

Beste urte batzuetan bezala, oinguan be aurrekontuaren zati haundi bat irisgarritasuna hobetzera bideratuko dabe. Momentuz holakuetarako 1.300.000 euro aurreikusitue ditue, baiña Alkatetzaren memorixan jaso dabenez, *"ixa seguro urtian zihar gehixago biharko dala Jardiñeta, Tiburtzio*



Anitua, Karlos Elgezua, Ubitxa-San Kristobal, Mekola, Barrena edo toki batzuetan irisgarritasuna hobetzeko".

Aurtengo nobedadietako bat udalak herritarren partehartzia sustatzeko egitten diharduan ahalegiñaren eskutik dator: 800.000 euroko partida bat jarri dabe, herriko auzoetan dirua zertan gastau eibartarrak zuzenian erabagi deixen. Horretarako parte-hartzerako prozesuak zabalduko ditue eta, horrez gain, honi lotutako informaziñua udalaren web orrixan eskuragarri ipiñi dabe.

Bestalde, inbersiñuen kapituluan 1,2 milioitik gora hartu dabe Unbeko zelaixetako bedar artifiziala aldatziak, ikastetxieta hobekuntzak, energixia aurreztera bidera-

tutako neurrixak, baserri-auzuetako hobekuntzak, obra txixixak eta hiri- ekipamenduak.

Kultur arloko edukixetarako 2,5 millioi dagoz jasota. Coliseo antzokixa, Portalea, Armagintzaren Museua, musika, Antzerki Jardunaldixak, Juan San Martin Udal Liburutegixa, herrixan ospatzen diran jaixak eta beste hamaika jarduera, kultur eskintza osua antolatzeko dirua da hori. Eta zeregin horretan, oin arte moduan, herrixan dagozen alkarte eta taldiekin alkarlanian segitzeko asmua dakela azaldu dabe.

Euskeriak, Ingurumenak eta Gazterixiak aurrekontuaren 1,3 millioi euroko partida funtzional zihetzak badittue be, *"horren garrantzixa gaiñontzeko ekintzetan daken eragiñak emoten detse. Horregaittik, herriko alkartieri emoten jakozen diru-laguntzak ezin leikez laga aittatu barik"*. Aurten 750.000 euro baiño gehixago emongo detse kirol zein kultura arluan biharra egitten daben alkartieri, auzuetako komisiñueri, Gobernu Kanpoko Erakundieri, arlo sozialeko taldiei, bardintasuna sustatzen dabeneri eta euskeriaren alde dihardueneri, bestiak beste.

Aittatutako laguntasun horrez gain, faxadak konpontzeko laguntzak, gaztien lokalak indarrian dagozen arauetara

AURREKONTUAREN LABURPENA

SARRERAK32.357.193 €

ZUZENEKO ZERGAK	8.120.088 €
ZEHARKAKO ZERGAK	250.000 €
TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.257.199 €
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	20.158.072 €
ONDARE SARRERAK	76.503 €
INBERTSIO ERREALEN BESTERENGAN.	208.000 €
KAPITAL TRANSFERENTZIAK	37.727 €
FINANTZA AKTIBOAK	32.800 €
FINANTZA PASIBOAK	2.216.803 €

GASTUAK.....32.357.193 €

PERTSONAL GASTUAK	11.051.036 €
ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUAK	8.305.857 €
FINANTZA GASTUAK	35.100 €
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	5.814.595 €
KREDITUA ETA BESTE USTEKABEAK	600.000 €
INBERTSIO ERREALAK	5.624.008 €
KAPITAL TRANSFERENTZIAK	503.000 €
FINANTZA AKTIBOAK	35.200 €
FINANTZA PASIBOAK	588.395 €



Eguazten arratsaldian egin zan 2018. jardunaldirako Udal aurrekontua onartzeko pleno berezixa, Bilduko ziñegotzi baten faltan. **Silbia Hernandez**

moldatzeko laguntzak eta gaztien eman-
zipaziñorako diru-laguntzak be emongo
dittu Udalak, ia 300.000 euro guztira. Eta
Alkatetzaren Memorixan atala itxi baiño
lehen laburbildu dabenez, "millioi bat
euro baiño gehixago emongo dogu, Ei-
barko gizartiarekin alkarlanian arituta, he-
rrixa hobetzeko eta bizixagua, aktibua-
gua egitteko".

PSE-EE eta EAJ-PNVren aldeko botuak

Aste honetako plenuaren amaieran, au-
rrekontuari botua emoteko momentuan ez
zan sorpresarik izan, aurretik be alderdi ba-
kotxak zer egingo eban argi esanda
eguan-eta. Izan be, udal taldiak azaruaren
amaieran jaso eben Udal Aurrekontuaren
zirriborrua eta abenduaren 28ra arte izan
eben zuzenketak egitteko aukeria. Eta,

hortik aurrera, Gobernu-taldiak billerak egi-
tteri ekin zetsan, "oposiziñoko taldiekin
ados ipintzeko asmuarekin".

Aurreko hillian negoziaziñuak amaitutzat
emon zittuenian alkatiak egindako prent-
saurrekuan azaldutako moduan, "gehien-
gorik ez dakagunez, kontuak onartuko di-
rala bermatzeko, gitxienez beste udal tal-
de baten babesaren premiñia dakagu eta
aurten EAJ-PNVrekin adostu dogun hi-
tzarmenak emon desku horretarako bidia.
Beraz, alde horretatik pozik gagoz. Babesa
ahalik eta haundixena izateko beste alder-
dixekin be ados ipintzen ahalegindu gara,
baiña aurten eziñezkua egin jaku Eibarko
EH Bildurekin eta Irabazirekin ezer ados-
tia, arrazoi ezberdiñak tartian. Bilduk au-
rkeztutako zuzenketak 5.700.000 euro in-
gurukua izanda, lehelengotikan somatu

genduan kontuen kontrako jarrerria eta al-
derdi bixon arteko jarrerak gerturatzeko
modurik ez dogu topau. Eta Irabaziren ka-
suan, trabarik haundixena lehelengo bille-
ran bertan sortu zan, kalian daguzenen-
dako aterpetxia martxan ipintzeko arduria
Udalak hartu ezian, akordiorik ez zala
egongo esaterakuan, hau da, marra gorri-
xa hor ezartzian".

EAJ-PNVk, bestalde, 2,6 millioi inguru-
ko balixua daken zuzenketa partzialak au-
rkeztu zittuan, "eta sarrera eta gastuetako
600.000 euro ondare-salmentarekin kon-
pensatu egitten ziranez, aurrekonturako
benetako eragiña 2 millioi euro ingurukua
izan da eta, gaiñera, PSE-EEk berak egin-
dako zuzenketak hitzarmenian txertatu di-
ttugunez, bixon arteko adostasuna lortzia
posible izan da oinguan".

- **SUKALDEAK**
- **BAINUAK**
- **ETXEKO ALTZARIAK**



ASKETA
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA
SERVICIO INTEGRAL DE OBRAS



PROMOZIO BEREZIA
%10eko deskontua
ALTZARIETAN

Galdetu baldintzak dendan

Marina Ereña (trikitilaria)**“Triste banago ere, trikitixak poztu egiten nau”**

7 urterekin ez zitzaion solfeoa interesatzen, baina trikitixaren soinurekin liluratuta zegoen Marina eta Adolfo Jainagarekin hasi zen klaseak hartzen. 17 urterekin hor jarraitzen du, hainbeste ematen dion instrumentua perfektionatzen. Aurpegi ezaguna da Marina herriko kalejiretan eta ekitaldi berezietan. Kaleko giroa eta trikitixak sortzen duen alaitasuna asko gustatzen zaio, eta, horretaz gain, iaz sortu zen Parrapas erromeria taldeko kideetako bat da. Musika Batxilergoko azken ikasturtearekin uztartzen du.

- Bizitza erdia baino gehiago trikitixaren botoiak sakatzen, nondik datorkizu zaletasuna?

Musika beti egon da etxean sartuta. Aita Usartza txistulari taldeko atabalaria da eta amak Sostoa abesbatzean abesten du.

- Kalean sarri ikusten zaitugu, saltsa guztietan zaudela ematen du.

Orain dela 3 urte sartu nintzen Musika Eskolan Marisol Arrillagak zuzentzen duen trikitilari taldean, eta harrezkero beti kalean ibiltzen naiz. Taldearekin aukera izan dut Irlandara eta Bartzelonara joateko eta laster, apirilean, Madrilera joango gara, Koro Gaztearekin batera, aktuazioren bat eskaintzera. Madril ezagutzeko aprobetxatuko dugu. Askok gustatzen zait zaletasun hau konpartitzen dutenekin egotea.

- Parrapas Erromeria taldearekin zer moduz?

Beti nahi izan dut talde batean jo, baina ez nuen espero egitea. Oso *rollo* ona dago. Nik bakarrik Letu ezagutzen nuen, trikitilari taldean panderojolea eta “nire bikote profesionala” dena, taldeko besteak aurpegi bakarrik ezagutzen nituen. Oso ondo pasatzen dugu. Ni naiz neska bakarra, eta zaharrena, eta askotan ordena jarri behar izaten dut (jajaja). Pixkanaka badoaz kontzertuak irtetzen. Taldean asko ikasi dut –akordeak, toñoa egokitu...-. Ez da gauza bera bakarrik edo talde batean jotzea. Taldean denok proposatzen di-



Argazkia: Malen Jainaga

tugu kantuak eta ateratzen joaten gara. Astean 4 ordu entsaiatzen dugu elkarrekin, eta etxean ere egin behar duzu lana. Zeozer lortu nahi baduzu...

- Badakizu zer den trikitixa txapelketa batean egotea...

Urrian Letu eta biok Okondoko trikitixa txapelketa egon ginen. Lehenengo txapelketa izan zen eta laugarrenak geratu ginen. Gure lanarekin pozik bueltatu ginen. Agian errepikatu egingo dugu, baina ondo prestatuta joateko lan mordo egin behar da.


- Zer ematen dizu trikitixak?

Jotzen duenak gozatu egiten du eta publikoari ere gozarazi egiten dio, niri poztu-

suna ematen dit. Triste banago ere poztu egiten naiz. Kalean, jendartean, lagunekin afari batean... Adrenalina soltatzeko ere oso ondo dago. Aitxitxari gustua egitearren hasi nintzen egunero entsaiatzen, eta harrezkero, ahal badut, egunero jotzen dut.

- Eta hemendik aurrera, zer ?

Gehiago sakontzea gustatuko litzaidake. Zenbakiekin dakit jotzen, beraz, ondo legoke solfeoa ikastea. Eta aurrerago trikitixa klaseak ematea beste aukera bat da, hau da, nik dakidana beste bati transmititzea. Eta gustauko litzaidake euskal kultura hemendik kanpora erakustea. Irlandako esperientzia oso ondo egon zen.

**JOSEBA ZINKUNEGI GARMENDIA
“ERREZIL”**

(1966-IV-02 / 2017-II-26)

“Urtebete hire irribarrerik gabe, baina hirekin bizi izandako uneak ahaztezinak izaten jarraitzen ditek guretzat”

HIRE KOADRILA

Martxoaren 7ra arte jasoko dituzte Gaztearen XXVII. Maketa Lehiaketarako lanak



Urtarrilaren erdialdean abiatu zuten Gazteak antolatzen duen kantu lehiaketa ezagunena, aurten 27. edizioa beteko duen Gaztearen Maketa Lehiaketa. Martxoaren 7ra arte egongo da zabalik lehiaketarako kantuak bidaltzeko epea. Aurreko edizioetan bezala, diskoetxe batekin inolako kontraturik ez duten Euskal Herriko talde eta bakarlari guztiak hartu ahal izango dute parte lehiaketan. Lehiakide bakoitzak hiru abesti aurkez ditzake eta, musika estiloari dagokionez, ez da inolako mugarik jarriko.

Lehiaketarako kantuak aurkezteko, Maketa Lehiaketa 2018 webgune berezira (eitb.eus/eu/gaztea/maketa-lehia-

keta) sartu eta hor aurkituko duzuen formularioa bete beharko duzue, zuen datuekin (taldearen/artistaren izena, kantuaren izena, herria, ordezkari baten izen-abizenak eta telefonoa). Abestiak, berriz, audio formatuan sartu behar dira. Behin kantuak jasota, antolatzaileak zuekin harremanetan jarriko dira (maketa igotzean arazoren bat baduzue, zalantzaren bat sortzen bazaizue edo zuekin harremanetan jartzen ez badira, gaztea-aweb@eitb.eus helbide elektronikora idatzi).

Epaimahaiak, lehiaketara aurkeztutako maketa guztiak entzun ondoren, aukeraketa egingo du. Aukeratutako kantu horiek Gaztea atarian jarri-

ko dituzte, jendeak entzun eta gehien gustatzen zaionari botoa emateko aukera izan dezan. Bozketa-fasea lanak entregatzeko epea itxi eta astebetera hasiko da eta epe horretan bozka gehien jasotzen duten bi maketak finaleira pasatuko dira. Horrez gain, epaimahaiak beste hiru maketa hautatuko ditu finalera igarotzeko.

Final handia Bilboko Kafe Antzokian egingo da, apirilaren 27an, eta jendeak bozka bitartez zein epaimahaikoek hautatutako bost taldeek zuzenean

jo beharko dute. Emanaldi horretan epaimahaikideak egongo dira eta, zuzeneko horretan oinarrituta, Gaztearen XXVII. Maketa Lehiaketako irabazlea zein den erabakiko dute.

Irabazleentzat sari ederrak banatuko dituzte. Epaimahaiaren sariaren irabazleak 5.000 euro jasoko ditu dirutan eta, horrez gain, BBK Live jaialdian jotzeko aukera izango du. GazteBizHitza saria edo entzuleen saria irabazten duenak, berriz, 2.500 euro eramango ditu. Eta Kafe Antzokiaren saria eskuratzeko duenak 300 euro.

Gazte-txartelaren abantaila guztiak esku-eskura



Gazte-txartelaren titularra izanez gero, oso modu erosoa jaso dezakezu txartelak eskaintzen dituen deskontu eta abantaila guztien berri, "Pack 2018" izeneko telefono mugikorrean deskargatuta. Androiderako bertsioa prest dago Google Play-n eta laster App Store-n ere aurkituko duzue. Gainera, aisialdi, kultura zein kirol arloko jarduera interesgarri ugariaren inguruko proposamenak ere jasoko dituzue, urte osoan astialdiaz goza dezazuen gutxiago gastatuta.



Iñaki Goikoetxea Izeta

I. URTEURRENA: 2017-II-22

"Maitasunak batuko gaitu, oroitzen gaitu eta alkartuko gara"

etxeak





Plateren artean

Albiste onak arrautza eta esneki ekoizleentzako

Albiste onak gure ekoizle txikiak, eta, ondorioz, baita kontsumitzaileen ere. Orain arte arrautzak edo edozein esneki saltzeko betebeharrak berdinak ziren multinazional batentzat edo ekoizle txiki batentzat. Guztiz bidegabekoa eta eginezina, bete ezineko parametroak zeuden-eta.

Ba, hemendik aurrera eta Elikagaien Segurtasunari buruzko araudia aldatu barik –atal hau hobeto betetzen dugun herrialdea garela gogoratzea komeni da–, Euskadin esne bolumen txikia eta arrautza kopuru txikia ekoizten duten ustiapenek euren errealitatera egokitutako betebeharrak izango dituzte, eta, ondorioz, errazagoa izango da gertuko merkatuetan euren produktuak saltzea edo negozio berri bati ekitea. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoa lehenengoa da pausu hau ematen.

Hemen dituzue, **Elika Fundazioari** esker,

indarrean jarriko den araudiaren detaile garantzitsuenak. Joan den otsailaren 11an eman genituen ezagutzera Radio Euskadiko La Ruta Slow saioan.

- **Esnekiak:** eske pasteurizatua, jogurtak, gatzatua, kefirra, gazta freskoak eta erdi onduak, gurinak, esne-gainak, gaztanbera... esne gordiarekin egindako gaztak 60 eguneko gutxieneko ontzepearekin eta esne-izozkiak.

- **Arrautzak:** A kategoriako oilo arrautzak, norberaren ustiapenetan ekoiztutakoak. Salmenta motari dagokionez, zuzenean,



aitor buendia

LA RUTA SLOW-EKO
GIDARIA RADIO EUSKADIN



EUSKADIN JADA APLIKA
DAITEZKE ARRAUTZA
ETA ESNEKIEN
EGOKITUTAKO
BETERAZUNAK

ADAPTADOS LOS
REQUISITOS
HIGIÉNICO-SANITARIOS
PARA HUEVOS Y
LÁCTEOS EN EUSKADI



bitartekorik gabe, kontsumitzaileari egiten zaion salmentari eragiten dio araudiak, eta baita merkataritza-zirkuitu motzean egindako salmentari ere: establezimendu txikiak edo minoristak, landaetxeak edo jantoki kolektiboak. (**Informazio gehiago** lortu daiteke Foru Aldundietako Abeltzantza zerbitzuetan, Osasun lurralde zuzendaritzetan edo www.elika.eus webgunean). Arauak egiterako orduan sektoreko eragileek ez ezik, Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapenerako, Azpiegitura eta Osasun Sailek ere hartu dute parte; eta koordinazioa eta aholkularitza ELIKA arduratu da, nekazaritza elikagaien segurtasunerako Euskal Fundazioa, hain zuzen ere.

Nire esperientzia gastronomikoa NYCn, etxe-orratzen hirian

Aktibitate handiz betetako egunak izan dira, dena oso azkar joan da. Zentzu guztientzako benetako gozamina, glamourrez betetako jatetxe ikusgarrietatik hasita kaleko tabernetara, poltsiko guztien neurrikoak.

Etorbidean shopping egiterakoan klasikoa bihurtu den saltxitxa ogitartekotik hasita, Hotel Plazako brunch luxuzkoenara. Baina bata eta bestearen artean aukera zabala dago, munduko edozein lekutara eramaten zaituzten zaporeekin

eta atmosferekin... Oraingo honetan, agian, Ekialde Urrunarekin geratuko nintzateke. Ez dago zalantzarik Japoniarekin zerikusia daukan guztiak modan jarraitzen duela... oso lokal originallak, ondo landutako at-



josu belautstegi
BELAUSTEGI JATETXEA

mosferarekin, eta prezio-kalitate erlazio bikainarekin. Sasimi, sushi, gyozas baporean, woks,... Korear jatetxeak ere aurkitu genituen, Thais,... Denak elkarrekin baina haien artean nahastu gabe. Chinatown-era ere osteratxoa egin genuen. Arrain bizien arraindegiek arreata deitzen ja-

rraitzen dute... Erakustokietan eskegitako ahate laktuak, barazki freskoak, denak Asiatic ekarritakoak, kalean bertan aurki daitezkeen janaria, usainak... Oraindik ere kale horietan zabiltzanean Txinan barrenean sartzen zarela ematen du. Gozamina zentzu guztientzako.



Etxeak zure esku

Inmobiliarien gehigarria

Eibarren gaur egun daukagun etxebizitzaren eskaintza oso zabala da. Bigarren eskuko etxebizitza zein berria nahi izanez gero, herrian ditugun inbiliarrietara jotzea besterik ez daukagu. Horietan diharduten profesionalak behar dugun informazio guztia emango digute: etxebizitzaren kokapena, orientazioa, metro karratuak, ezaugarriak, zein egoeratan dagoen, prezioa... Eskuartean daukazun gehigarri hau lagungarri izango zaizuela uste dugu. Eta informazio gehiago nahi izanez gero, konpromisorik gabe joan zaitezke sektore honetako adituengana: zeuen premiei erantzuteko prest egongo dira.



www.aukera-inmobiliaria.com
943 12 13 95 Bidebarrieta 29




BOE Egazelai. Eibar Ref. 1092

Babes ofizialeko etxebizitzak.
2 logela 127.000 €-tik.
Denak garaje eta trastelekuarekin.




San Agustin. Eibar Ref. 1232 eta 1233

2 eta 3 logelako etxebizitzak.
Gutziz berriztuak. Igogailu eta
trastelekuarekin. 210.000 € eta 320.000 €



Txaltxa-zelai. Eibar Ref. 1234

3 logela. 2 balkoi.
Igogailua eta kalefakzioa.
220.000 €



Barrena. Eibar Ref. 1257

Berriztua. 3 logela. Altzariekin.
Igogailua, kalefakzioa eta trastelekua.
130.000 €



Mutiola. Eibar Ref. 1161

3 logela. Kalefakzioa.
170.000 €



Julian Etxeberria. Eibar Ref. 1133

3 logela. 2 komun. 101m².
Igogailua 0 kotara.
290.000 €



T. Etxebarria Galdetu
2 logela, komuna, sukalde-egongela. Berriztua. Igogailua eta kalefakzioa.



Julian Etxebarria Galdetu
100 m². Konpontzeko. Igogailua eta kalefakzioa.



Errebal Galdetu
125 m². 4 logela, egongela-jangela, sukalde-jangela, 2 komun. Igogailua, trasteroa eta kalefakzioa.



Zezenbide Galdetu
75 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailuarekin. Dena kanpora begira.




T. Etxebarria Galdetu
5 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna. Igogailuarekin.



Santainés 90.000 €
3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Pisu baxua. Kalefakzioa.



Barakaldo 120.000 €
2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Konpontzeko. Kanpora begira. Igogailuarekin.




Arrate-bide 100.000 €
2 logela, egongela-sukaldea, komuna eta despentsa. Egoera onean.



Barakaldo 150.000 €
2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa. Egoera onean. Dena kanpora begira.



J.A. Mogel 90.000 €
3 logela, sukalde-egongela eta komuna. Kalefakzioa, igogailua eta trasteroa. Konpontzeko. Eraikina guztiz berriztua.



Deba-Anguleru Galdetu
3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Kalefakzioa eta igogailua. Guztiz berriztua.



San Juan 130.000 €
2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Terraza eta igogailuarekin. Konpontzeko.



Gisastu Bide 162.000 €
2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Egoera onean. Trasteroarekin.



Iifar-kale 105.000 €
2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Konpontzeko. Igogailua eta trasteroarekin.



Bidebarrieta Galdetu
85 m². 4 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna. Konpontzeko. Igogailua.



Bustinduitarren Galdetu
2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena kanpora. Ezinhobea. Trasteroarekin.



Toribio Etxebarria, 1
943 20 03 58
fincas@euki.com
www.euki.com

- **Gestio inmobiliarioa:** alokairuak, erosketak, salmentak, tasazioak, kontratuak...
- Galdetu zure etxebizitzaren **Finantziatorako Bidea:** mailegu hipotekarioak, pertsonalak...
- **Informazio Pertsonalizatua**

LOKAL
KOMERTZIALAK
ETA INDUSTRIALAK

Salmentan eta alokairuan.

GARAJE
PLAZAK ETA
GARAJE ITXIAK

Salmentan eta alokairuan.



Romualdo Galdos Galdetu
Egongela, sukalde-jangela, 3 logela, komuna. Konpontzeko. Trasteroarekin.



Txomo Galdetu
 3 logela, egongela, sukaldea eta bi komun (97 m²)
 2 balkoi, garaje itxia eta trasteroa.



Arragueta 118.000 €
 Etxebizitza handia. Dena kanpora begira. Igogailua kaleraino.



San Juan Galdetu
 Pisu altua. 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Igogailua eta kalefakzioa.



San Juan Galdetu
 Berriztua. Kalefakzioarekin. Igogailua kaleraino.



Ifar kale 155.000 €
 Ezinhobea. Pisu altua. Igogailua.



Isasi 170.000 €
 Estreinatzeaz. 2 logela. Guztiz jantzia.



Isasi 180.000 €
 Estreinatzeaz. 2 logela.



Egiguretarren Galdetu
 Atiko zoragarria. Terrazekin.



Ibarkurutze 44.800 €
 Ganbara-estudioa. Igogailua kaleraino.



Urkizu 65.000 €
 Aukera paregabea. Konpontzeko. Igogailua kaleraino.



Polonia Etxeberria 155.000 €
 Primerakoa. Igogailua kaleraino.



Jardineteta 162.000 €
 Pisu altua. 3 logela. Igogailua kaleraino.



Jardineteta 99.000 €
 Bizitzera sartzeko. 2 logela balkoiekin.



Isasi 156.000 €
 Pisu altua. Igogailua kaleraino. 3 logela.



Barrena 80.000 €
 Atiko dotorea. Igogailua kaleraino eta trasteroa.



Asola Igartza 142.000 €
 Apartekoa, terraza handiarekin. Babes ofizialekoa. Garajearekin



Isasi Galdetu
 Bikaina. Dena kanpora begira. 3 logela, igogailua kaleraino.



Ipuruako dorreak Galdetu
 Apartekoa. 3 logela. Garajea aukeran.



Errebal Galdetu
 190 m². Igogailua kaleraino. Terrazarekin.




T. Etxebarria Galdetu
 Konpontzeko. Etxebizitza handia. Igogailua kaleraino.



Ubitiba 122.000 €
 2 logela. Igogailua kaleraino.



Arane Galdetu
 Erdiberriak. 2 eta 3 logela. Garajearekin.



Ego Gain Galdetu
 Bikaina. 2 logela, 2 komun. Garaje itxia aukeran.



Sautxi 159.000 €
 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Garaje partzela bi.



Urkizuko dorreak 200.000 €-tik
 Pisu altuak. 2 eta 3 logelako etxebizitzak.



Etxeak
zure esku

Inmobiliarien gehigarria

dp donpiso

FIDATU ZAITAZ PROFESIOALETAZ
BAKARRIK

Isasi, 16
EIBAR

M. Valdespina, 12
ERMUA

www.donpiso.com

Zure etxea saltzeko
modurik azkar, errez
eta eraginkorrena

donpiso@donpisoibar.com

943 82 05 10

618 769 839

HIGIEZINAK
ARREGI
INMOBILIARIA

Errebal, 20

Tel./Faxa. 943 203 333

Mobila. 656 766 344

www.inmoarregi.com

Arragueta, 2 bis B-behea
943 20 08 60

agencia
inmobiliaria

Juaristi

A.P.I.: Rosa Juaristi

- salerosketak
- errentamenduak
- balioztatzeak

rosa@inmobiliariajuaristi.com
www.inmobiliariajuaristi.com

ARBELOA
INMOBILIARIA

688 72 41 22

info@inmoarbeloa.com

San Frantzisko 34,
Elgoibar

www.inmoarbeloa.com


Eraikuntza berria **San Bartolome 1**
- ELGOIBAR -

Finantzatzea
LABORAL lekuia

Sustatzailea
ISGA Inmuebles s.a.

Kudeatzailea
gasdas
Gestión de Inmuebles

T: 688 72 41 22



Jardineta

98.500€, 75m²

2 logela, balkoia, egongela, sarrera, komuna eta sukaldea despentsarekin. 5.pisua igogailuarekin.



R. Galdós

240.000€, 90m²

Eguzkitsua eta bista zabalak. 3 logela, sukaldea, balkoia, egongela, 2 komun eta ganbara. 3. solairua igogailuarekin. Kalefakzioa.



San Miguel Auzoa

690.000€, 490m²+0,2Ha

Etxe zoragarria, 4 logela, egongela, 2 komun, sukaldea ederra, bi terraza eta 2 garaje. Inguru paregabea.

IbaiOndo
inmobiliaria



Bidebarrieta, 24 behea Tel. 943 201213

www.inmoibaiondo.com

ibaiondo@inmoibaiondo.com



32 GARAJE-PLAZA. Sarrera kalean bertan. Untzaga ondoan. Batzuk trasteroa daukate. **18.742,85 €-tik.**



SAUTXI

209.000 €

Duplex polita, oso egoera onean, argitsua eta eguzkitsua. 90 m² beheko solairuan eta 69 m² goian. Sukaldea guztiz jantzia. Armairu enpotratuak. 2 garaje-plaza. Alokatu daiteke, erosteko aukerarekin.



URKI

153.000 €

2 logelako etxebizitza polita. Batek jantzigela ederra dauka. Egongela-jangela, sukaldea, bainugela eta komuna. Kalefakzioa. Kanpora begira. Oso eguzkitsua. Guztiz berritua eta jantzita. Bizitzera sartzeko. Igogailua.



TXALTXA ZELAI

200.000 €

Bizitzera sartzera modukoa. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Oso argitsua. Garajearekin. Igogailua "cota 0".



T. ETXEBARRIA

189.000 €-tik

Hainbat etxebizitza erdigunean. Denak oso handiak eta aukera askorekin. Igogailuarekin.



SAN JUAN

239.000 €-tik

Hainbat etxebizitza, San Juan kalean. Denak oso ederrak eta igogailuarekin.



JUAN GISASOLA

145.000 €-tik

Hainbat etxebizitza. Bakoitzak 3 logela, egongela, sukaldea eta komunarekin.

1913an Thomas Alva Edisonek soinu-dun zinearen lehen proba aurkeztu zuen, Otomandar Inperioak Europako lurraldeei uko egin zien eta Bilboko San Mames zelaia inauguratu zen. Bitartean, Errege egunean, Isabel Barambio etorri zen mundura Buenache de Alarconen (Cuenca). 105 urte eta gero dantzan ospatzen du bizitza Isabelek oraindik. Bakarrik bizi da Isasi kalean, ia ez du sendagairik hartzen eta irribarre zintzo batek aurpegia pizten dio. Bi alabei, ilobei eta birbilobei ere bizitza luze eta zorionsua opa die, beti dantzan.

ISABEL BARAMBIO:

“Nire bizitzan zenbat dantza egin ote dut nik!”

- Dantza asko egin zenuen Untzagako Jubiletxean jaso zenuen omenaldian?

Beno, pixka bat. Gero dantza modernoagoak hasi ziren eta horrek ez zaizkit hainbeste gustatzen.

- Zeintzuk gustatzen zaizkizu gehien?

Klasikoak. Pasodoblea, tangoa... gaztetan egiten genuena. Zenbat dantza egin ote dut nik!

- Bizitza osoa dantzan?

Nire senarrari ere asko gustatzen zitzaion. Legarreko erresidentziara joaten ginen dantzan egitera. Ni kartetan ibiltzen nintzen, baina berak kartak uzteko eta dantzan egiteko esaten zidan.

- Dantza egiteaz gain, zer gehiago egin zenuten omenaldian?

Lore-sorta bat eman zidaten. Arrosa ederrak! Hor dauzkat jarroi batean ipinita.

- Aratosteetako martitzenean izan zen omenaldia. Kokojantzi zinen?

Ez! Baina aratosteak izateagatik jendea animo handiarekin zegoen. Inoiz ez zait gehiegi gustatu mozorrotzea.

- Beti bizi izan zara Eibarren?

Ez. Buenache de Alarconen (Cuenca) jaio eta Motilla de Palancarera (Cuenca) ezkondu nintzen. Eskualdeko herri garrantzitsuena da Motilla eta bost urte inguru bizi izan nintzen han. Eibarrera etortzea erabaki genuenean bizilagunek zera esaten zidaten, “Eibarrera joango zarete bizitzera? Han euria besterik ez du egiten eta!”. Egun hauetan arrazoia eman behar diet behintzat (barreak).

- Zergatik etorri zineten Eibarrera?

Gerra Zibila gure herrian pasa genuen eta amaitzean senarra kartzelan sartu zuten. Bost urte egin zituen espetxean eta, gero, Eibarrera etorri ginen. Euskaldun batzuekin topatu zen gudan eta eurek esan zioten Euskal Herrira etortzeko. Boluntario moduan ibili zen gerran, tankeak gidatzen, eta horregatik espetxeratu zuten gero. Tankeekin zebilenez, arrisku gehiago omen zuelako edo, janari gehiago jasotzen zuen eta inguruan bizi zen emakume bati ematen zion. Demaseko gosea zegoen, oso gogorra izan zen.

- Noiz etorri zineten Eibarrera?

1946. urtean etorri nintzen senarra eta bi alabekin. Hasiera batean Bidebarrieta kalean bizi ginen eta gero Bittor Sarasketan.



Bost urte egin genituen han Isasi kalera etorri arte. Lan bila etorri ginen eta, kasualitatez, nire senarrak ezagun batzuekin egin zuen topo. Gisasola tailerrean egin zuen lan eta ni Aurrera eraikinetako enpresa batean ibili nintzen urte batzuetan pieza txikiak egiten. Gero, etxean egin izan dut lan.

- Aldaketa handia igarri zenuten Motilla eta Eibarren artean?

Bai. Landa-eremuan dago Motilla eta bizitza-mota ezberdina zen. Aldaketa ona izan zen, oso ondo bizi izan garelako hemen. Gainera, Motillako etxea mantendu dugu eta sarritan joan izan naiz hara.

- Zer moduz sentitzen zara 105 urterekin?

Oso ondo! Gezurra dirudi, baina urteak pasa dira eta hemen nago 106 urteei begira. “Hau bizitza latza, maitasun gabe ez naiz biziko”, zioen abestiak.

- Bada, maitasun asko izan duzu orduan!

(Barreak) “Maitasun gabe ez naiz biziko”, baina bizi naiz! Nire senarrak 100 urte beteko nituela zioen eta nik ezetz erantzuten nion. Ba, azkenean bai. “Arrosa baten moduan zaude”, zioen. “Bai, arrosa zimela!”, erantzuten nuen.

Miguel Gallastegi handiak 100 urte beteko ditu domekan

1918ko otsailaren 25ean etorri zen mundura Migel Gallastegi Ariznabarreta. Mandiola bailarako Asoliartza baserrian jaiotakoa pilotaren historiak eman duen pilotari handienetakoa izango zen gero. Lehenengo partiduak Astelenan jokatu zituen C.D. Eibarrek antolatutako txapelketetan eta 1936. urtean profesional bezala debutatu zuen Astelenan. 1941. urtean txapeldun-orde izan zen Atano III. arekin batera, antolatu zen lehenengo binakako txapelketan. Hurrengo urtean debutatu zuen buruz-burukoan eta, txapelketatik kanpo, izen handia eman zion garaipen handia lortu zuen Astelenan Atano III. ari 22 eta 16 irabazita. Hurrengo urtean Migelen jokoak gorakada nabarmena izan zuen eta 1944. urtean 22 eta 0 irabazi zion Groseko pilotalekuan Zurdo de Mondragoni, txapelketatik kanpo lagatzeko. 1945. urtean errekorra jarri zuen 104 partidu jokatu. 1946ean 101 partidu jokatu zituen 10 hilabetetan: 72 partidu irabazi eta 29 baino ez zituen galdu. 1947an berriz ere Atano III.a hartu zuen mendean: 22-9. Buruz buruko txapeldun izan zen 1948, 1950 eta 1951. urteetan: lehenengoan 22-6 irabazi zion Atano III.a handiari Bergarako pilotalekuan; aurretik Astelenan jokatu zen finalerdian 22 eta 20 irabazi zion Akarregiri. Eta azken honi irabazi zizkion hurrengo bi txapelketak: Astelenan (22-15) eta Bergaran (22-14). 1953. urtean Barberito bere lagunaren kontrako finala ez jokatzea erabaki zuen.

Pilotazaleek hain gustuko zituzten bikoteen aurkako partiduak edota lagunarekin hirukoteen aurka jokatutakoak ere ezin dira ahaztu. Gisa horretako 54 partidutatik 41etan izan zen garaile eta 13tan baino ez zuen galdu. Ubilla I eta II.aren aurka 22 eta 9 gailendu zenean, 500 lagun geratu ziren Astelena kanpoan partidua ikusi ezinik. Ospetsuak dira, baita ere, ezkerrekin jokatuz Zurdo de Mondragonen kontra irabazitako partidua (22-0) eta 3.000 ikusleren aurrean Tricioko frontoian Frantziako txapeldun ziren Laduche eta Harambilleten aurka jokatutakoa. 1960. urtean pilotari profesionala izateari laga zionean, Miguelen bizitza profesionala enprekin erlazionatuta egon da; zinemak eta antzerkiak, eraikuntza, nekazaritza eta abeltzaintza. Pilota mundura era profesionaltasuna ekarri zuen eta, bere burua bikain prestatzeaz gain, asko egin zuen pilotarien eskubi-deen alde. Zaindu ere, ondo zaindu den seinale da mende osoa hartzea. Zorionak!



Eskuz binakako eta palazko partiduak hartuko ditu gaur Astelena frontoiak

Hiru kategoría eta modalitate nahastuko dira gaur, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Katedralak hartuko duen hiru partiduko jardunaldian. Hor izango dira, hasteko, eskuz binakako federatuen arteko Udaberri Torneoaren partidua; jarraian gurpil-aulkien gaine-



ko gomazko pala-partidua, hori ere federatuen mailakoa; eta, azkenik, Eibarko pilota eskolako gaztetxoaren arteko eskuz binakakoa. Seniorren arteko lehenengo partiduan, Narbaiza-Agirresarobe Eibarko Klub Deportiboko bikoteak Pérez eta Escalero Oñatiko ordezkariak izango ditu aurrez-aurre. Bigarren partidua zaletu gehienek gutxitan ikusi izango zuten horietakoa izango da, aulkien gainean palistek duten jokatzeko trebetasuna izango baita protagonista: Lasak eta Lizasok osatutako bikoteak Quesadak eta Nabaridasek osatutakoa izango dute aurrean. Azkenekoan, berriz, pilota eskolan gaztetxo-ene egiten diharduten progresioa ikusteko aukera izango dugu, Oruezabal-Segurola eta Ibarra-Gisasola bikoteen arteko lehiaketarekin. Aitzakia ezinhobea duzue, beraz, Klub Deportiboko pilota batzordekoek prestatutako jaialdiaz gozatzeko.

Astelena amaituko da pilotari profesionalen binakako txapelketaren lehen fasea

Asteburu honetan txapelketako hamalau garren eta azken jardunaldia jokatu da, eta Astelena pilotari profesionalari zabalduko dizkio ateak berriro. Aspe enpresak Miguel Gallastegi omentzeko asmoa ere bazuen justu domekan 100 urte betetzen dituelako, baina orain dela gutxi mokorra apurtu zuen eta, hobetzen badoa ere, oraingoan pilotari handia ez da Katedralan izango. Bestela, ohikoa izan da azken aldirian Miguel frontoian ikustea. Ez da neurketa erabakigarririk izango azken jardunaldi honetan (hurrengo faserako lau sailkatuen izenak erabakita daude)

eta, horrela, ikusgarritasunean irabazi deza-ke jaialdiko partidu nagusiak. Txapelketatik kanpo geratu den Irribarriak eta Merino II.ak osatutako bikoteak indarrak neurtuko ditu finalerdietarako txartela eskuratu duten Altuna III.ak eta Martijak osatutakoaren aurka: bi aurrelari artisten lehia izan daite aurreko kadroetan. Lehen partiduan Retegi Bi - Jaurarena eta Jaka - Erostarbe bikoteen arteko norgehiagokaa ikusi ahal izango da eta, domekako jaialdia amaitzeko, Ugalde - Merino eta Pello Etxeberria - Irusta bikoteen arteko partidua izango da jokoan.

Moyua atezaina taldeko onena izan zen Iruñean

Somos Eibarrek ez zuen jakin guztiz aprobeztatzen Beti Onakek eskaini zion aukera eta 23nako berdinketarekin itzuli ziren Eibarrera Fernando Fernandezek mutirik. Igor Moyua atezainak lan bikaina egin zuen, baina kantxako jokalariek ez zuten asmatu nafarrak jokalaririk gu-



txiagorekin egon ziren tarteak. Avia Eibarko emakumezkoen lehen taldeak 32-26 irabazi zion, atsedenaldira 17-11 aurretik joan eta gero. Itsaso Mendikute eta Nahia Basterra izan ziren onenak. Eta Gipuzkoako 1. Mailako Haritzak 27-33 irabazi zion Egia Koskori, gaur 20:30ean Legazpi multzoko "oilarra" hartu aurretik. Harrobiko taldeei dagokienez, nabarmentzekoa da **infantil mailako Bossaren (argazkian)** garaipena Elgoibarren (10-17).

ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

1. Maila

Celta - Eibar (bihar, 13:00)

Emakumezkoen 2. Maila

Ardoi - Eibar (etzi, 12:30)

2. B Maila

Vitoria - Sporting B (etzi, 12:00)

Emakumezkoen Lurralde Maila

Intxaurdi - Eibar (etzi, 12:00)

Erregional Gorengo Maila

Ordizia - Eibar Urko (etzi, 12:00)

1. Erregionala

Eibartarrak - Urki (bihar, 15:45)

FOBALL-ZALETUA

Bar Arkupe - L.P. Tankemans (bihar, 09:00)

Sporting - Reformas Hiru (bihar, 09:00)

Esmorga - Garajes Garcia (bihar, 10:30)

Ipur Sag. - Feredu Solutions (bihar, 12:00)

Slow XOK - Azkena Adahi (etzi, 09:00)

Alkideba - Durango (etzi, 10:30)

Bar Areto - Bar Txoko (etzi, 12:00)

ESKUBALOA

1. Nazional Maila

Somos Eibar - Romo (bihar, 19:00)

Emakumezkoen Euskadiko Txapelketa

Leizaran - Avia Eibar (bihar, 17:30)

Gipuzkoako 1. Maila

Haritza - Lau Bide Legazpi (gaur, 20:30)

ERRUGBIA

Ohorezko B Maila

Avia Eibar Rugby - CRAT (etzi, 12:30)

Euskal Ligako 2. Maila

Avia Eibar Rugby B - Iruña (bihar, 16:00)

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

Urbat Urkotronik - Leioa (etzi, 15:40)

Emakumezkoen Euskal Herriko 1. Maila

Larraina - Urbat IKE (etzi, 16:30)

Errugbiko nesken taldeak gogor egin zion La Unicari

Mailaz igotzeko fasean sartuta, ligako bigarren jardunaldian eibartarrek La Unica faborito nagusiaren bisita jaso zuten Unben aurreko asteburuan. Ez hori bakarrik, atsedenaldira 5-0 aurretik erretiratu baitziren Cristina Guntinen entsegu bati esker. Amaiaeran, baina, nafarrek 5-15 irabazi zuten; hala ere, jakinda lehen fasean eibartarrek 83-5 amore eman behar izan zutela, bidean egindako hobekuntza nabaria da. Gizonezkoen lehen taldeak kaskarrago jardun zuen Oviedon eta ezusteko 18-0koarekin itzuli ziren Eibarrera. Etzi izango dute porrot hori ahazteko aukera, A Coruña-ko CRAT jasoko baitute Unben eguerdiko 12:30ean.

Domekako Negutrail topaketarekin hasiko dira aurtengo Mendi Jardunaldiak

Aipatutako ekitaldiak eta hilaren azken egunean, eguaztenean, egingo den bi orduko GPS gailuen erabilera ikastaroak zabalduko dute Eibarko Mendi Jardunaldietako egitaraua. Domekako goizeko 08:30ean hasiko da Klub Deportibotik eta hiru ordutan egiteko negu-trail erraza izango da eta parte-hartzea irekia da. Hala ere, antolaketa lanak errazteko izena ematea beharrezkoa da (kalamuakorrikalartaldea@gmail.com). Hilaren 28an, bestalde, Deporrek instalazioek hartuko dute GPS-aren inguruko ikastaroa, 19:00etatik 21:00etara. Mendiko irteeretan segurtasunez jardun ahal izateko GPS gailuek mendiko orientazioan eskaintzen dituzten aukerak aztertuko dira hor; komenigarria

da GPS-a eramatea.

Behin martxoan sartuta, hilaren 6an eta 7an Bilbo Mendi Film jaialdiko pelikulak ikusi ahal izango dira Coliseoan, egun bietan 19:00etan hasiko diren funtzioetan. Sarrerak 5 eurotan jarriko dira salgai eta martxoaren 2tik erosi ahal izango dira. Martxoaren 22an Carlos Suarez base jauziak egingen dituen eskalatailearen hitzaldia izango da. Abentura munduan ere murgiltzen den kirolaria 19:00etan izango da Portalean. Eta, jardunaldiekin amaitzeko, handik bi egunetara, hilaren 24an, eskalada topaketa izango da Kultu tabernan. Eskalada probatu nahi dutenentzat prestatutako zapatu horretako ekitaldian parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute aurretik eta ez



da beharrezkoa aurreko esperientzia izatea.

Sagardotegiko irteera

Aurreko zapatuan Deporrek mendi batzordeko egutegiaren barruko sagardotegiko ohiko irteera egin zen eta, Elgoibarko Morkaiko klubarekin elkarlanean egindako txango-

an, 33 lagun bildu ziren. Andoainen hasi eta Usurbilerainoko bidean 562 metroko Andatza gaina egin zuten. Goiz osoa euripean ibili eta gero, Usurbilgo kiroldegian dutxa hartu eta sagardotegira bazkaltzera abiatu zen taldea. 18:00etan bueltan ziren berriro, eguna oso giro onean pasatuta.

Deltecoko duatloilariak Sopelan eta Astilleron hartu zuten parte

Aurreko zapatuan hasi zen duatloi denboraldia Euskadiko zirkuitoan Sopelan jokaturako probarekin eta Delteco Eibar Triatloi taldeak bi ordezkari izan zituen bertan. Gonzalo Saezek 43. postuan amaitu zuen (13. bere kategorian) eta Roberto Gartzia 50.ean (14. bere mailan). Deltecokoek Kantabriara joateko aprobeztatu

zuten hurrengo eguna, Astilleroko duatloia jokatzera, eta han Andoni Mayo izan zen ordezkari onena, 23. postuan (13. bere mailan), eta Jon Illarramendik 43. postuan amaitu zuen (4. bere kategorian). Saltoki taldearekin parte hartu zuen Aitziber Urkiola eibartarra bigarren heldu zen helmugara. Mungiaiko duatloia dute zain aste-buru honetan Deltecokoek.



Mayo, Urkiola eta Illarramendik Astilleron hartu zuten parte.



Odei Jainagak Espainiako marka egin eta Berlinerako txartela eskuratu du

Odei Jainaga xabalina jaurtitzailak estatuko marka guztiak hautsi zituen aurreko zapatuan Castellon, 80,64 metroko jaurtiketarekin. 2003tik indarrean zegoen Gustavo Dacalen 78,88 metroko marka ia bi metrotan hobetu du Klub Deportiboko atletak eta, orain ez asko guri eskainitako elkarriketan "80 metro gaidituta jendea ez litzateke harrituko" zioenean, erakusten zuen bere buruarekiko konfidantza egiaztatu du. 20 urteko kirolariak ekitaldiko laugarren jaurtialdian asmatu zuen markarekin abuztuan Berlinen jokatu diren Europako txapelketan izateko gutxienezkoa eskuratu du eta, horrela, han lehitzeko txartelaren jabe da. Cristina Larrea bere amaren bidetik jo duen kirolaria 2015ean 50 metrora heldu zen, 2016an 60ra eta iaz 70ak ondo pasatu zituen. Iaz Sorian 77,66 lortu eta gero, aurreko astean 77,90ra heldu zen. Hurrengo Olinpiadak 2020an direnez...

Eibarko jiu-jitsu Espainiako Kopa goraipatua izan da

Gurean hiru edizio bizi izan dituen Espainiako Kopa horrek Federazioaren esker ona jaso du, "bere antolaketa, eredugarria izateaz gain, zaila delako berdintzea". Superkopa mailako txapelketa hori izako data berean jokatu da aurten ere, azaroaren 2tik 4ra arte. Bestalde, aurreko zapatuan Madrilgo Kirol Kontseilu Nagusiaren instalazioetan jiu-jitsu modalitateko gerriko beltzak lortzeko azterketetan epaile izateko ikasleentzako birziklaia ikastaroan izan zen Manu Agirre Kalamua klubeko entrenatzailea Euskadiko ordezkari moduan. Horri esker Agirre epaimahaikide izan daiteke estatu osoko torneoetan.



Udaberri probarekin hasiko da Eibarko Txirrindulari Elkartearen egutegia

Etzi goizeko 09:45ean hasiko den junior nazional mailako probarekin hasiko da errepiderako Eibarko Txirrindulari Elkartearen prestatutako egitaraua. Errepidetik kanpo ere badakitelako ekitaldiak antolatzen: horren proba da aurreko domekan, Musika Bandaren eskutik, eskaini zuten txirrindularitza-musikarekin osatutako IX. Udaberri Kontzertua. Domekako Udaberri 40. edizioa beteko du eta oraingoan, txirrindularitza zaletuei gerturatzeko ahalginean, helmuga T. Etxebarriara ekarriko dute berriro. Lasterketaren amaiera 11:45ak aldera dago aurreikusita, 78 kilometro osatu ondoren. Txirrindulariek Bergararaino joko dute lehenengo, Maltzagara bueltatu eta Ondarrurako bidea hartu baino lehen; handik Markinarako bidea hartu eta, San Miguel mendatea pasa ondoren, Maltzagatik sartuko dira helmugaren bila.



Aitor Montero motozaleak talde berriarekin ekingo dio denboraldiari

Eibarko motozaleak martxoaren 17 eta 18ko asteburuan hasiko du denboraldia, oraingo honetan mailaz eta motorrez aldatut: Kawasaki ZX10R 1000cc-koaren gainean hartuko du parte SBK (superbike edo Extreme), CIV (abiadura txapelketa) eta Mantxako txapelketetan. Amañatarrek bera babesten duten guztien laguntza eskertu du, "tartean Regina, MTR School pilotaje eskola, Mieres Racing, JBA rotuloak eta Moli bereziki". Asteburu honetan Monterok aurrendenboraldiko testak gainditu beharko ditu Albazeteko zirkuitoan, Ivan Hilario eta Alfredo Garcia mekaniko eta telemetrikorekin batera.



Gipuzkoako Eskolarteko xake txapelketaren bi jardunaldi Eibarren

Etzi eta hurrengo domekan Eibarko zonaldeari dagokion Gipuzkoako Eskolarteko Xake Txapelketaren jardunaldiak jokatu dira Eibarren. Adin tarteka jokatzeko den txapelketaren barruan, Klub Deportivoak Gipuzkoako Xake Federazioarekin elkarlanean antolatutako egun bietan 2004 eta 2009 urteen artean jaiotako xakelariak izango dira. Bestalde, asteburuan jokatu taldekako liga txapelketan, 1. Mailan eta 3. Mailan jokatzeko duten Deporrekoko talde biek binako berdinketa lortu zuten: talde nagusiak Donostian bertako Gros E taldearen aurrean, bigarren taldeak etxean Elgoibarko C-ren aurka. Bihar Eibar A taldeak Hondarribi-Marlaxka izango du bisitari Deporren 16:00tan hasiko den neurketan, eta B taldeak bidaia motza du, Elgoibarren jokatu baitu bertako B taldearen aurka lehen fase honetako azken jardunaldian.



Eibar Urko Erregionaleko liderra

Erregional Gorengoen Mailako lider berria dugu bigarren multzoan: Eibar Urko gero eta sendotasun gehiago erakusten dihardu bai jokoan eta bai emaitzetan ere eta, gutxinaka postuak aurreratzen joan eta gero, azken jardunaldian Unben Oñatiko Lagun Onak-i 3-0 irabazita goi-goian geratu da bakarrik. Puntu bakarrera du Tolosa, hirura Aloña Mendi eta zazpita Elgoibar. Etzi eguerdian Ordizia azken sailkatuaren zelailan jokatu du; partidu aproposa dirudi lidergoari eusteko.

Sahara Festa antolatu dute biharko Untzagan

Eibar Sahara Elkarateak, Eibarko Inkorpore Coaching firmarekin elkarlanean, Sahara Festa antolatu dute biharko. Untzaga plaza izango du jaiak lekuko eta goiz eta arratsalderako egitaraua prestatu dute antolatzaileek

Ekitaldiak egun guztian izango badira ere, goizeko **10.30ean bigarren eskuko liburuen azokarekin** hasiko dute Sahara Eguna eta azoka horrek arratsaldeko 20:00ak arte iraungo du. **12.30ean trikipoteoaren** ordua izango da, plazan bertan hasita, eta Eibarko Trikitilari Gazteak-eko partaideek ipiniko dute jai-giroa. Antolatzaileek diotenez, "Oberena harategiaren eskutik edariak eta txorizo egosia dastatzeko aukera izango da" eguerdian.

Arratsaldeko **18:00etarako aizkolarien ROXTEC norgehiagoka** historikoa antolatu dute, aita-semeak partaide izango dituen lehian. Ernesto Ezpeleta "Bihurrik" bere seme Hodei izango du lagun Zelai II.ak eta Zelai III a semeak osatuko duten bikoteari aurre egiteko. Herri-kiroletako maila handiko norgehiagoka ikusteko aukera izango duguna. Eguerdian bezala, txorizo egosia eta edariak hartzeko aukera izango da berriz ere.

20:00etan beste ekitaldi berezi bat hasiko da: Bilbotik etorriko den **The Daltonics** rock and roll taldeak kontzertu ikusgarria eskainiko du. 2015ean sortutakoa iturri askotatik edaten duen taldea bada ere, beti ere bere estilo "adarjotzaile eta lotsabakoari" eusten dio. Amaitzeko, Eibarko **Mugi Panderoa** taldeak euskal erromeria eskainiko du **21:15etik** aurrera.

Egun guztian parte hartuko duten entitate guztiek Oporrak Bakean programaren barruan Saharako umeak Eibarrera ekartzeko euren laguntza eskaini dute eta oso garrantzitsua izango da eibartarrok ere gure eskuzabaltasuna erakustea asmo berearekin. Eibar Sahara Elkarateak ahal duen guztia dihardu egiten, Espainiako Ministeritzarekin harremanetan, zortzi urteko Lhasan Ahmed-entzat hona etortzeko baimeana lortzearen bila. Atake epileptikoak izaten ditu eta, hori dela-eta, badira zazpi hilabete horrek eragindako osasun arazo

10:30etatik 20:00etara
BIGARREN
ESKUKO LIBURU
azoka.

12:30ETATIK 14:30ETARA
TRIKIPOTEOA EIBARKO
Trikitilari Gazteekin.

18:00ETAN AIZKOLARIEN
aita seme Desafiu Historikoa
(BIHURRI-HODEI/ZELAI II-ZELAI III)
BABESLEA:

Roxtec

ANTOLATZAILEAK:

INKORPORE
Coaching & Sport Solutions

Eibar-Sahara
Elkaratea

Edariak
eta
PINTXOAK

ROBERENA
HARATEGIA

THE DALTONICS

MUGI
PANDEROA

20:00etan Bilboko
THE DALTONICS
rock & roll taldearen
kontzertu ikusgarria.


21:15etan Euskal Erromeria
EIBARKO
MUGI PANDEROAren
eskutik.

SAHARA EGUNA - OTSAILAK 24
EIBAR - UNTZAGA PLAZA

handiei egin behar diela aurre. Hain gaztea izanda, baimen berezia behar du hona etortzeko, "baina ezinbestekoa da hona ekarri eta medikuen esku ipintzea".

Aipatutakoaren moduko kasuek larriagotu egiten dute berez errefuxiatuen kan-

pamentuetan bizi behar izaten duten egoera gogorra eta "horrelako egun berezietan, kontzientziario maila handitzeaz gainera, haraino hel daitekeen era guztietako laguntasuna ondo baino hobeto dakite euren ere estimatzen".



Aste bete-betea Antzerki Jardunaldietan

GAUR Bizkaiko Khea Ziater konpainiak Unai Garate eta Nia Gomesen gidioa taularatuko dute Coliseoan. "Los visitantes"-ekin 75 minututan errealitate-show bat ikusteko aukera izango dugu eszenategian, antzerkia eta zinema uztartze-laneko musikalean. BIHAR haur-antzerkiaren hitzordua izango dugu 17:00etan, Madrilgo La Canteraren "Deambulantes o la verdadera historia de la poeta errante" lanarekin.

Otsailaren 23an

"Los visitantes"

20:30ean Coliseoan

Otsailaren 24an

"Deambulantes..."

17:00etan Coliseoan

Otsailaren 25ean

"Para seguir viviendo"

20:30ean Unibertsitatean

Otsailaren 26an

"La vida es sueño"

20:30ean Coliseoan

Martxoaren 1ean

"Sensible"

20:30ean Coliseoan



Programatutako harribitxi horrek baditu osagaiak helduen gozameneko ere. ETZI, bestalde, Arrojoscénico madrildarrak izango dira gurean berriz ere, oraingoan "Para seguir viviendo" dramarekin. Aktore gutxiagorekin eta bertsio murriztagoarekin datoz arrazoi existentzialen bila ipiniko gaituen lan honetan. ASTELEHENEAN beste lan bat izango dugu ikusgai, laugarrena lau egunetan, Calderón de la Barcaren "La vida es sueño" ospetsuarena. Teatro del Templeko aragoitarrek orain dela mende batzuetako lana gaur egungo sasoira egokituko dute, 100 minutuko interpretazio bikainean. Bi eguneko tartearen ondoren, EGUENEAN, Madrilgo beste konpainia batek, Concha Bustok, "Sensible" lana eszeneratuko du, Constance de Salm-en testuaren inguruan eta dantzak indar berezia hartuko duen saioan.

AGUS PEREZ en kolaborazioa

Aztiarena egiten

Urtero lez, hemen dagoz Eibarko Antzerki Jardunaldiak, eta aztiarena egitea tokatu zait, zeren eta orain arte ez baititut euskarazko antzezlaritako batzuk ikusi. Espero dut berba jan behar ez izate!

Mikel Martinez eta Patxo Telleria bilbotarrek osatu zuten aspaldian Ez dok Hiru bikote teatrala, eta oraingo honetan izen bereko emanaldia eskainiko digute. Bikotearen izenak garai bateko Ez dok Amairu kolektiboa ekartzen digu gogora, eta emanaldian zehar denon gogoan dagozen kanta askoren errepasso umoretsua egingo dute. Ondo pasatzeko moduko emanaldia, seguruenik.

Duda barik, *Txarriboda*-k ikusle asko erakarriko ditu Co-

liseo antzokira. Hika taldeak ezkontzetan izaten diren mozkorraldiak, endredoak eta tirabirak aurkeztuko ditu bere azken sorkuntza eszenikoan, eta espero izatekoa da taula gainean denetarik gertatzea. Nire beldurra da ez ote duten gatz larria neurri barik erabili, baina iturri fidagarriek esan didate oso dibertigarria suertatzen dela. Ikusiko dugu. Azken finean, nor ez da halako txarriboda bateko erdi gonbidatu erdi biktima izan?

Egunetan aurrera joanda, *Ulisesen bidaia* emango du Gorakada taldeak. Durangoko sortzaileok espezialistak dira ume-antzerkian, baina euren muntaiek nagusiak ere asebetetzen dituzte, ederto zaintzen dituztelako elementu artistiko-


ak –musika, argia, jantziak, tramankulu eszenikoak...– eta antzezpeneen kalitatea. Beraz, nik behintzat beldur barik gomendatzen dizuet emanaldia.

Eta euskarazko emanaldi sorta *Sherezade eta tipularen azalak* obrarekin bukatuko da. Denak esaten digu gizartearen konbentzionalismoak aztertzen dituen lan honek asko daukala gure bizimoduaz esateko, era poetiko eta atseginean betiere, eta kontuan hartzeko moduko elementuen artean noren eta Iñaki Salvadoreren musika dago. Bitartean, jakin beharra dago *Sherezade 1001 gauak* haietako protagonista zela, eta oraingoan heldu izatera ailegatu gura ez duen neskato bat izan ei dela.

Baina euskarazko programa-



ziotik kanpo bada bizitzarik, eta arlo horretan bereziki gomen-datuko nituzke Kataluniako Titzina teatroaren *La zanja*, Portugalgo Chaptô-ren *Electra* –ez galdu, gero– eta Bizkaiko Khea Ziaterren *Los visitantes*, formula-teatroaren arlokoa izan arren.



DAVID KARBA -KVALVIKA-
(musikaria)

- Orain dela urtebete Kvalvikak bidaia hasi zuen lehen diskoarekin. Nora eraman zaitu? Nolako urtea izan da?

Urte polita izan da. Diskoa atera nuen ez nuen pentsatzen jendeari hainbeste gustatuko zitzaioela. Hainbat zuzeneko egin ditut, batez ere azkenaldi honetan. Hasieran ez nekien nola egokitu zuzeneko kontua, baina ideia garatu eta urtarilaren 5ean ikus-entzunezkoak erabilia eskaini nuen lehen kontzertua Ez Dok tabernan. Oso harrera ona izan zuen.

- Bidai bat gogoratzen zuen lehen diskoak, baina oraingoan alkatea dago bai gaiaren bai aldetik bai musikaren arloan. Zer aurkituko dugu bertan?

Bigarren diskoak ez dauka lehenengoarekin zerikusirik. Musikaren aldetik badago lehen diskoarekiko lotura bat, giro-musika kutsuari eusten dio nolabait, baina arlo kontzeptualean aldaketa dago. Oraingo honetan ez naiz kanpora irten

"Sare sozialetako gorroto gaindosiak inspiratu nau"

Norvegia eta Islandiara bidaiatzeko aukera eman zigun lehen diskoan eta barreneko haserreak azaleratu ditu bigarrenengan David Karbak, Kvalvikak. 'I'm your social network. I'm your talent show' da gaur egungo gizartearen funtzionamendua kritikatzeko duen lanaren izenburua. Apirilaren 21ean Turbojugend jaialdian egongo da Asturiasen eta data gehiago zehaztuko dituzte ikus-entzunezkoekin lagundutako kontzertuak eskaintzeko, barreneko pasioari irteera emateko.

behar izan inspiratzeko, aktualitateari eta sare sozialei begirada bat botatzearekin nahikoa izan da. Sutan jarri naiz egungo egoerarekin, Kataluniako afera ikusi besterik ez dago. Gorroto sobredosia dago sare sozialetan eta horrek inspiratu nau. Lan sozialagoa irten zait.

- Nola eraman duzu haserre hori arlo musikalerara?

Lanak ez ditut aldeztu aurretik pentsatzen, irteten doaz, eta zerbait daukadanean aukeraketa egiten dut horren gainean lan egiteko. Oinarri batzuetatik abiatu nintzen, sintetizadoreak sartu eta gitarra eta baxuen soinua gehitu nien. Lan honetan gehiago abestu nahi nuen, gaiak horrela eskatzen zuelako. Abesteko proposak ziren lau abesti nituela ikusi nuen, eta beste erregistro batzuk eman eta hainbat musikariren laguntza izan ahal nuela pentsatu nuen.

- Diskoaren azala ere guztiz aldatu da.

Ruben Ramosek egin du; Cohen, Reu-

ben RG eta Nerabe taldeetako musikariak. Post it-ak erabilia marrazki satirikoak egiten ditu eta nire diskoarentzat aproposa ikusi nuen. Gaur egun sare sozialetan eta telefono mugikorrekin funtzionatzen dugun moduaren kritika egiten du azalak. Askok aurreratu dugu arlo teknologikoan, baina gizarteak mila urte egin ditu atzera. Egunen batean lurrera jausiz gero normalagoa izango da lehenik norbaitek mugikorrekin grabatzea altxatzen laguntzea baino.

- Hainbat musikariren kolaborazioa izan duzu diskoa garbatzeko. Nolako da jende askorekin elkarlanean aritzea?

Zoragarria. Gitarra jotzea asko kostatzen zait, adibidez. Abesten nahiko ondo moldatzen naiz, baina instrumentuekin zailagoa egiten zait, niretzat errazagoa da sekuentziatu eta programatzea. Beraz, asko dakien eta miresten duzun jendeari laguntza jasotzea izugarria da.

Henna tailerra antolatu dute eguenerako ...eta kitto!-n

Datorren astean, eguenean, henna tailerra egingo da ...eta kitto! Euskara Elkartean eskutik. Berez, Berbalagunentzat bereziki antolatutako tailerra da, baina bete bariko tokirik geratuko balitz, izen-ematea gainontzeko guztientzat zabalduko dute. Tailerra ...eta kitto!ren lokalean (Urkizu, 11 solairuartera) izango da, 18:30etik 20:00etara. Izena emateko edo informazioa eskatzeko 943 20 09 18 telefonora deitu daiteke edo, bestela, ongietorri@etakitto.eus helbidera idatzi.



Jakoba Errekondok bere liburu berria aurkeztu zuen

Aurreko asteko eguenean ...eta kitto! Euskara Elkartean lokalean izan zen Jakoba Errekondo, "Landareak lantzen" berak idatzi duen liburuaren aurkezpena egiten. Saioa ...eta kitto! Euskara Elkartean Ilunabarrian programaren barruan antolatu zuten.

Eneritz Artetxek "Uretako ipuinak" kontatuko ditu bihar liburutegian

Bihar arratsaldean, Zapatuko Ipuina egitasmoaren baitan "Uretako ipuinak" izenburuko ipuin-kontakizuna eskainiko du Eneritz Artetxek umeen liburutegian, 18:00etatik aurrera. Ipuin-kontalariak berak esan duenez, "ipuin kontaketa honetan umek istorio harrigarri, beldurgarri, zoragarri zein dibertigarriak entzungo dituzte. Hori bai, ipuin horiek guztiak uretatik etorritakoak izango dira, ipuin guztietan agertuko da ura bere forma guztietan. Eta uretako istorio horietan pertsonaia guztiek izango dute tokia: lamiek, baleek, marrazoek, olagarroek, itsas gizonak, printzesak, txakurrek...". Sarrera doan izango da.



guztiak uretatik etorritakoak izango dira, ipuin guztietan agertuko da ura bere forma guztietan. Eta uretako istorio horietan pertsonaia guztiek izango dute tokia: lamiek, baleek, marrazoek, olagarroek, itsas gizonak, printzesak, txakurrek...". Sarrera doan izango da.



Tantanez Tantan bideo-lehiaketarako lanak martxoaren 21era arte

Tantanez Tantan edo "gantxilaren jai" ospatuko dugu maiatzaren 19an Eibarko euskalgintzak Eibarren AKEBALren babesarekin antolatuta eta aurten, lehen aldiz, ekitaldiari lotuta bideo-lehiaketa egingo da. Eibarko DBH 3. eta 4. mailako eta batxilergoko ikasleek izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera, gehienez 30 segundo iraungo duten bideoak aurkeztuta. Lanak euskeraz grabatuta egon beharko dira eta, horrez gain, bideoak ekitaldiaren promoziorako erabiliko dituztenez, antolatzaileek hainbat datu derrigorrez aipatzea eskatzen dute: ekitaldia izango den eguna (maiatzak 19), ordua (13:00ean hasiko da), gantxilak eskurik esku beteko duen ibilbidea (Urkizutik Untzagara) eta egun horretan protagonista nagusia den gantxila.

Lehiaketarako bideoak martxoaren 21erako elkartea@etakitto.eus helbidera bidali beharko dira (artxiboa atxikitu daiteke edo, bestela, bideoa ikusteko lotura bidali). Lehiaketara aurkeztutako lan guztien artean 3 onei saria (talde-afaria) emango diete. Bestalde, jasotako bideo guztiak ekitaldia ezagutzera emateko erabiliko dituzte. Informazio gehiagorako, 943200918 telefono zenbakira deitu.



Giza-irudi bizidunen erakustaldia

Aurreko barixakuan Untzaga plazan eta Toribio Etxebarria kalean egon ziren giza-irudi bizidunen erakustaldiarekin hasi zen, urtero lez, Antzerki Jardunaldietako egitaraua. Bartzelonatik etorritako aktoreek aurten ekarri dituzten pertsonaia koadro batetik irtendako figurak ziruditen, goitik behera kolorezko pintzelkadekin margotuta zeuden eta.

Euskararen Transmisioa mintegirako izen-ematea


Euskararen Transmisioa VIII. Mintegia egingo da martxoaren 7an (eguztena) Portalean, goizeko 09:00etan hasi eta bazkaltzeko ordua ailegatu bitartean. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako jardunaldian Paula Kasares (soziolinguista eta irakaslea), Unai Viana (Arabako Gazte Euskaltzaleak), Leire Diaz de Gereñu eta Isabel Santamaria (Gasteizko Ramon Bajo ikastetxeko gurasoak), Imanol Canales eta Garikoitz Lasa (Bilboko Ave Maria ikastetxea), Edorta Lopez Rey (AEK-ko Praktikatuz zerbitzuko koordinatzailea), Eneko Gorri (Biarrizko Herriko Etxea-ko euskara teknikaria eta Mintzalasai elkarteko kidea) eta Amelia Barquin (MU-neko irakaslea) egongo dira. Informazio gehiagorako eta izena emateko etakitto.eus orrian sartu zaitezke edo, bestela, ...eta kitto! Euskara Elkartera jo.

FELIX BERGARA ZURUTUZA (apaiza) V. urteurrena (2013-II-22)

"Eskerrak eman nahi dizkizugu, Felix, parrokiaren eta auzoaren alde egindako lan guztiagatik"

HAREN IDAZKARIA (M^a DEL CARMEN FERNANDEZ MEMBRIBE), SENIDEAK, JASOKUNDEKO ELIZTARRAK ETA EIBARKO LAGUN GUZTIAK

Haren aldeko **MEZA** ospatuko dugu domekan (hilak 25), Azitaingo Jasokunde Parrokian, goizeko 11.00etan





UXUE IGARZA

“Segurtasun- indarrak”

Zer ote den egun oso bat ilunpetan pasatzea, edo astebete, edo 10 hilabete. Zer ote den inorekin harremanetan ezin jartzea, ezin besteak ikustea, ukitzea, besarkatzea... Zer ote den zure mundua bat-batean lauzpabost metro karraturen barruan sartzeko zerratu beharra. Agurtzane eta Ainhoa euskal preso politikoak 9. moduluko komunak garbitzera behartu zituzten eta hauek ezetz erantzun zuten. Maiatzaren 18tik, aste honetara arte, isolatuta, bakartuta, zigortuta egon dira. Granadako kartzelako betebeharrak sexisten aurka egiteagatik. Emakumezkoen kartzelatan presoak komunak garbitzera behartzen dituzte emakume izate hutsarengatik, izan ere gizonentzat ez da halako araurik. Egia esanda, emakumeen espetxeetan ere “araurik” ez dago, baina funtzionarioen eta zuzendaritzaren aginduek dira. Emakume presoek kartzelatan garbiketara eta joste lanak egin behar dituzte; gizonen kartzelatan, imajinatuko duzuen moduan, ez. Gainera, gizon presoek bestelako lan horiek egiteagatik ordainsaria jasotzen dute; emakumeek, imajinatuko duzuen moduan, ez. Matxismoa emakumeak zigortzeko tresna nagusia den sistema batean bizi gara. Funtzionarioek, polizia eta gobernuek bortizkeria armatzat darabilten bitartean, beraiek dute genero indarkeriarengatik erasotutako emakumeak babesteko erantzukizuna eta betebeharra. Nola sentituko gara ordea babestuta, beste emakume batzuk erasotzen dituzten horiek artatzen gaituztenean?

Jose Miguel Laskurainek “Bergarako Agurra” estreinatuko du domekan Bergaran bertan

Jose Migel Laskurain eibartarrak sortu duen “Bergarako Agurra” domekan estreinatuko dute, Bergarako Txistulari Bandak herri horretako udal-txean 13:00ean emango duen kontzertuan. Bergarako Txistulari Bandako zuzendaria zen Ramon Etxanizek urrian erretiroa hartu zuela eta, Laskurainek hartu du haren tokia eta asteburuan estreinatuko den pieza sortuta Bergarako udalari eskerrak eman nahi izan dizkio, “txistuari eta Txistulari Bandari babesa erakusteagatik”.

Bergarako Txistulari Bandan hainbat aldaketa izan dira azken aldiari eta, besteak beste, Ber-

garako Musika Eskolatik etortziko txistulari berriak sartu dira taldean. Piezaren sortzaileak beraz azaldu duenez, “helburu bikoitza daukan Agurra da. Batetik, Bergarako dantzari eta txistulariek bisitari bereziak omentzeko beraiena den agur propioa izatea eta, bestetik, Bergarako Udalari eskerrak ematea, azken bi urte hauetan txistuari eta Bergarako Txistulari Bandari erakutsitako babesagatik”. Txistu bakarrarekin interpretatzeko idatzi du Laskurainek “Bergarako Agurra”, baina txistulari banda oso batekin batera edota pianoarekin jo ahal izango da baita ere eta, horrez



gain, kantatu eta dantzatzeko aukera ere emango du.

Domekan amaituko da e-berba lehiaketarako proposamenak aurkezteko epea

Eibarko Udalak, Eibarko AEK-k eta Udal Euskaltegiak antolatu duten “E-berba lehiaketa” azken txanpan sartu da eta parte-hartzaileek domekara arteko tarteak izango dute euren proposamenak egiteko. Mundu digitalean barra-barra erabiltzen diren ingelesezko berben pareko egokia euskeraz asmatu beharko dute lehiakideek, antolatzaileek emandako zerrendari jarraituta: In-



fluencer, Youtuber, Meme, Spoiler, DIY (do it yourself), Trending topic, Selfie, Postureo, Hater eta Fake. Proposamenak posta bidez euskaltegia@eibar.eus, eibar@ae.eus, edo euskara@eibar.eus helbideetara bidali daitezke edo, bestela, Juan San Martin liburutegian jarri duten postontzira eraman. Antolatzaileen berbetan, euskarazko berbek ez dute zertan itzulpen zuzenak edo literalak izan eta umorea eta originaltasuna baloratuko dira. Irabazleentzat sariak banatuko dituzte.

Maite Arriagaren margo erakusketa dago ikusgai Kokojatzen estudioan

Otsailaren 9az geroztik Maite Arriaga artista eibartarraren margo erakusketa ikus daiteke Calbeton kalean dagoen Kokojatzen arkitektura estudioan. Erakusketa martxoaren 11ra arte egongo da ikusgai eta, horren harira, bihar goizean, 10:30etik 12:30era, bi ikaslerekin batera Kokojatzen jardungo du margotzen Maitek, zapatuetako klasea han emango du-eta.





Herrixa Dantzan saioa ELGETAN


Domekan, 19:00etatik 20:30era Herrixa Dantzan dantzaldi irekia egingo da Elgetako Espaloia Kafe Antzokian, Elgetako Udalak lagunduta. Beste batzuetan bezala, dantza gidaria Patxi Montero izango da. Dantzaldiaren oinarria tradiziozko dantzek eta musikak osatzen dute eta asmoa animatzen diren herritarrek dantzan elkarrekin ondo pasatzea da. Parte-hartzea librea eta doan izango da. Bestalde, Kafe Antzokiko taberna itxita dagoen arren, antolatzaileek jatekoak eta edatekoak eramango dituzte.



Haurrentzako antzerkia ERMUAN

Bihar arratsaldean, 17:00etan hasiko da "GU (Ez gaude bakarrik)", Borobil Teatroa konpainiaren antzezkizuna Ermua Antzokian. Lanaren egile eta zuzendaria Anartz Zuazua da eta antzezleak, berriz, Asier Sota, Julen Vega, Imanol Espinazo eta Hannah Berry. Ikuskizunak ia ordubeteko iraupena dauka eta lau urtetik gorako umeentzat pentsatuta dago. Sarrerak 4 euro balio du.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Albino Dos Reis Pirao Augusto. 49 urte. 2018-I-26.
- Rosita Bustinduy Madinabeitia. 86 urte. 2018-II-15.
- Edurne Etxebarria Ansola. 98 urte. 2018-II-15.
- Guillermo Otaegi Agirretxe. 96 urte. 2018-II-16.
- Juana Iriondo Urionabarrenetxea. 79 urte. 2018-II-16.
- Jose M^a Ansorregi Juaristi. 94 urte. 2018-II-19.
- Eugenia Ganboa Bedarona. 79 urte. 2018-II-20.
- Jose Luis Basurto Bolunburu. 94 urte. 2018-II-20.
- Manuela Muñoz Centeno. 82 urte. 2018-II-21.

jaiotakoak

- Emmanuel Montero Brito. 2018-II-10.
- Celia Martinena Pedraza. 2018-II-17.

farmaziak

- Barixakua 23
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Zapatua 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 25
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Astelehena 26
EGUNEZ Mandiola (San Agustin, 3)
- Martitzena 27
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Eguaztena 28
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 1
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 2
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)

GAUEZ BETI -2018AN-
 Lafuente (Sostoatarren, 10)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

2	5	8	7	4	9	6	1	3
9	3	4	2	6	1	7	8	5
6	7	1	5	8	3	2	4	9
3	1	2	4	5	7	8	9	6
7	9	6	8	1	2	3	5	4
4	8	5	9	3	6	1	2	7
8	2	7	3	9	4	5	6	1
5	6	9	1	7	8	4	3	2
1	4	3	6	2	5	9	7	8

	6	3			9			7
			4			6	8	
	8		2					
		1		9				
	9	4				2	6	
				7		9		
					3		7	
	4	8			5			
5			1			8	2	

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekua.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 23

FACTORING

10:00/20:00. Neguko Beherapenen Azoka. Horren barruan.

17:30/19:00. Dendariak eta Ostalariak Berbetan programari eskainitako txokoa, ...eta kitto!rekin.

18:00. "Musgoso Band" soul taldearen emanaldia (T. Etxebarrian).

DANTZA

18:00. "Just Dance" (8-11 urte bitartekoentzat). Doan. Jazinto Olabe ludotekan.

ANTZERKI JARDUNALDIK

20:30. "Los visitantes" (Khea Ziater). 12 euro (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Zapatua 24

SAHARA EGUNA

10:30. Bigarren eskuko liburu azoka (20:00ak arte).

12:30/14:30. Trikipoteoa, Eibarko Trikitilari Gazteekin.

18:00. Aizkolariak: aita- seme arteko desafioa.

20:00. Kontzertua: The Daltonics (Bilbo).

21:15. Erromeria, Mugi Panderoa taldearekin. Untzagan.

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro (doan EMGI-ko txartelarekin). Astelena frontoian.

URTEKO BATZARRA

16:00. Eibarko Irratizaleen Elkartearen urteko batzarra. Eskarne jatetxean.

ANTZERKI JARDUNALDIK

17:00. "Deambulantes o la verdadera historia de la poeta errante" (La Cantera). 5 euro. Coliseoan.

UMEENDAKO TAILERRA

17:30. Eskulan tailerra. Sarrera doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Ume eta gurasoentzat jolasteko gunea (2-5 urtekoentzat). Ipurua kiroldegian.

ZAPATUKO IPUINA

18:00. "Uretako ipuinak", Eneritz Artetxeren eskutik (4/9 urte bitarteko umeentzat). Sarrera doan. Umeen liburutegian.

Domeka 25

TXIRRINDULARITZA

09:45. XL. Udaberri Saria, junior nazional mailakoa.

11:45ean amaituko, T. Etxebarriako helmugan.

IKASTAROA

11:00. Talo ikastaroa, Gurasoak Berbetaneko eta Ongietorri Berbetanera programako partaideentzat. ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Portalean (sukaldean).

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Ume eta gurasoentzat jolasteko gunea (2-5 urtekoentzat). Ipurua kiroldegian.

ANTZERKI JARDUNALDIK

20:30. "Para seguir viviendo" (Arrojoscenico). 5 euro. Coliseoan.

Astelehena 26

EMAKUMEON ISTORIOAK

18:30. Teresa de Jesus. Pagatxa emakume elkarteak antolatuta. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIK

20:30. "La vida es sueño" (Teatro del Temple). 12 euro (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Martitzena 27

IKASTEN

10:00. "Zarzueta: sorrera eta bilakaera" hitzaldia, Marina Lertxundi, Donostiako Ekintza ikastolako musika irakaslearen eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00/19:00. Punto-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

Eguaztena 28

SOLASALDIA

17:00. "Herramientas para potenciar el poder personal" solasaldia, pastekin, Eskar Larrinagak gidatuta. Pagatxa emakume elkarteak antolatuta. Portalean.

GURASOAK MARTXAN

18:30. "Inteligencia emocional", Baikarako Garbiñe Arrizabalagaren eskutik. Portalean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 1

IKASTEN

10:00. "Erljioa gaur egun: kontu pribatua da ala dimentsio publikoa ere badu?" hitzaldia, Javier Elzo, Deustuko Unibertsitatetik Soziologian katedraduna eta ikertzailearen eskutik. Armeria Eskolan.

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza (beheko maila).

18:00. Dantza (maila altua).

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

TAILERRA

18:30/20:00. Henna tailerra, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Elkartearen lokalean (Urkizu, 11 solairuartea).

ANTZERKI JARDUNALDIK

20:30. "Sensible" (Concha Bustos). 12 euro (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Erakusketak

Otsailaren 28ra arte:

- PILAR AGUAYO, NEKANE ARANBURU ETA TXARO BARINAGA-REMENTERIAREN ARGAZKI ERAKUSKETA. (*El Ambigú eta Portalea jatetxean*)
- "DISTIRA" ARGAZKI ERAKUSKETA. (*Eibarko Klub Deportiboan*)

Martxoaren 4ra arte:

- "CUESTION DE TIEMPO" JOSE IBARROLAREN ERAKUSKETA. (*Portalean*)

Martxoaren 11ra arte:

- MAITE ARRIAAREN MARGO ERAKUSKETA. (*Kokojatenen*)

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurra etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, MAIALEN, martitzenian 13 urte beteko dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, IKER, mutil haundi, astelehenian 5 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi-haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ALBA, hillaeren 29xan 2 urte egingo dozuz-eta. Musu bat aitatxo, amatxo, amama-aitxitxa eta osaba-izeben partez.



Zorionak, JOSU, domekan 9 urte egingo dozuzelako. Ondo-ondo pasa eguna, famelixa eta lagunekin ospatzen.



Zorionak, IZAN, etzi zure lehen urtetxua ospatuko dogu-eta. Musu haundi bat aitta, ama, Kutxi eta famelixaren partez.




Zorionak, OIHAN Artetxe, txapeldun, hillaeren 20xan 2 urtetxo bete zenduaz-eta. Etxekuen eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ODILE, martitzenian 6 urte egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Bat, bi, hiru, LAU, sardiña bakalau! Zorionak, AITOR, eta patxito pilla bat!



Zorionak, MADDI!, hillaeren 17xan urtetxua egin zenduaz-eta. Patxito potolua etxekuen eta, batez be, Julenen partez.



Aurten iñoiz baiño gehixago. Zorionak, BEÑAT, zure 5. urtebetetzian. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JON, hillaeren 20xan 6 urte bete zenduaz-eta. Patxo potolo bat etxekuen eta, batez be, Malenen partez.



Zorionak, EUKEN!, astelehenian 5 urte beteko dozuz-eta. Musu bat famelixaren eta, batez be, lehengusu Xuhar-en partez.



Zorionak, OIER, atzo 5 urte bete zenduaz-eta!!! Musu potolo bat danon partez.



Zorionak, EKHI, atzo 5 urte egin zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, UNAI eta ANE, gure txikitxueri, domekan urtiak egingo dozuz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, ANE eta PABLO, zuen 4. eta 9. urtebetetzian. Segi bet bezain alai. Patxo haundi bat famelixaren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
24an: 19,45, 22:30
25ean: 20:00

"Cuando dejes de quererme"
 Zuzendaria: Igor Legarreta



(2 ARETOAN)
24an: 19,45, 22:30
25ean: 17:00, 20:00
26an: 20:30

"Black Panther"
 Zuzendaria: Ryan Coogler



(ANTZOKIAN)
24an: 17:00⁽¹⁾, 19,45, 22:30
25ean: 17:00^(1 aretoa), 20,00
26an: 20:30^(1 aretoa)

"Handia"
 Zuzendaria: Jon Garaño



(ANTZOKIAN)
24an: 17:00^(2 aretoa)
25ean: 17:00

"Una familia feliz"
 Zuzendaria: Holger Tappe



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai Elgetan. 3 logela, sukaldelagela, 2 komun, despentsa, ganbara eta terraza. Teilatua, fatxada eta leiho berriak. Kalefakzioa. Tel. 695-743398.
- Baseria salgai Mutrikun, terrenoarekin. Tel. 676-420846.
- Pisia salgai Jardina kalean. 2 logela. Eguzkitsua, balkoiarekin. Jantzita. Bizitzera sartzeko moduan. 99.000 euro. Tel. 659-088244.
- Babes Ofizialeko pisua salgai Barakaldo kalean. 3 logela, 2 komun, garajea eta trasteroarekin. Jantzita. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 600-752732.
- Etxea salgai Ubitxan. 2 logela. Igogailua behetik (0 kota). Berriztuta eta bizitzera sartzeko moduan. Toki lasaia. 122.000 euro. Tel. 663-070757.

1.2. Errentan

- Pisia, edo logela, hartuko nuke alokairuan. Tel. 612-299869.
- Bikoteak pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 605-363870.
- Amañan estudioa edo logela (sukaldea erabiltzeko eskubidearekin) hartuko nuke alokairuan. Tel. 674-277661. Cristina.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 674-930223.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garajea salgai J.A. Gisasola kalean (San Pion), kale mailan. Tel. 610-405146.
- Pabilioia salgai Elgetan (935 m.), instalazio guztiarekin: koadro elektrikoa, ur beroa, aire-sistema. 240.000 euro. Tel. 605-712852.

3.2. Errentan

- 33 m²ko lokala alokagai. Guztiz jantzita. 460 euro, negoziagarriak. Urtebeterako gutxienez (hiru hilabete doan). Tel. 688-678934.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 688-818176.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 655-677035.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko Mendaroko ospitalean. Tel. 654-940720.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-127874.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 603-660175.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-687362.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauz ere. Tel. 642-650900.
- Gizona eskaintzen da igeltsero eta pintore lanetarako. Tel. 642-650816.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-549177.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-251395.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 600-099460.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 675-807600.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxea garbitzeko. Tel. 602-856031.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-345286.
- Emakumea eskaintzen da etxeetan lan egiteko. Interna. Tel. 688-865466.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 654-590098.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-473324.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-878302.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-552207.
- Neska eskaintzen da arratsaldez etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 620-757528. Arrate.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 627-819217.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 695-144954.
- Emakumea eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Tel. 634-446252.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-963899.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-999079.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 643-130120.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 643-130135.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 608-897639.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 687-103913.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 602-172650.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-765929.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 627-167617.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 603-683176.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauz ere. Esperientzia. Tel. 652-894575.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-891709.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 688-712075.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 629-889465.
- Emakumea eskaintzen da jendea zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-995976.

- Emakumea eskaintzen da jendea zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-277173.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-400915.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 675-965130.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 605-598999.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarera moduan. Autoarekin eta erizain tituluduna. Tel. 650-455685.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-026510.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 680-526228.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 664-899227.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 677-768682.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta erakuntzan lan egiteko. Tel. 677-134181.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Tel. 665-274438.
- Emakume euskalduna eskaintzen da goizez umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-628137.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-358896.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erizain-laguntzailea. Erreferentziak eta 10 urteko esperientzia. Tel. 697-754174.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da taberna baterako. Esperientziarekin. Tel. 620-246953.
- Bertako emakumea behar da larunbat eguerditik igande gauera eta baita jaiegun batzuetan emakume bat zaintzeko. Tel. 605-708393. Leire.
- Pertsona behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Asteleheneetik ostiralerara, 07:00etatik 11:00etara. Izena emateko: umezainketa@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Fondue salgai sukaldatzeko. Erabili gabe. 30 euro. Tel. 943-120030.
- Zukugailua salgai. Philips "Quick Cleau". Berria. 40 euro. Tel. 943-120030.

6.2. Eman

- Txakurkumeak oparitzen ditut, ezin ditudalako zaindu. Hiru hilabeteoak. Tel. 722-222338.

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak
antena

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

943 530 356
688 674 242
669 934 964

electricidad iparelek s.l.

INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUA

iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobea
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

Ego Gain, 2 - Bac



Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com

TELEKOMUNIKAZIOAN PROFESIONALAK



TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRITAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922

ARKITEKTOAK

olatz etxeberrria martinez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberrria

arkitektura, hirigintza eta periferiak
erailin eta obretako kudeaketa teknika

Mekola, 7 - behea

Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com



ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E.

INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS



E.I.T.

ERAKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOAK
info@ajtoficina.com tlf. 943 80 18 30

AJT zihurtasuna s.l.p.

Barrena, 6 - behea ezk.

KRISTALAK



TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com

ERAKUSKETA

eta faxa: 943 203 903

Arikixaneko Zubian

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea

Tfnoak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA

ROSARIO, 15 - ELGOIBAR-

605 713 168

943 744 019

PINTURAK

baglietto

PINTOREAK

Zoru mota guztiak

Pinturak

Dekorazioa

Errebal, 21

Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

www.kolorlan.com 667 54 89 16



KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

ELEKTRIZITATEA

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac

ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62

630 95 73 45

943 20 06 97

GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie
mota guztiak
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082

Mobila 688 609 171

www.multiservicioeibar.com Arragueta, 18-2.D



TREJO GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557

Faxa: 943-752556

16 Postakutxatila - Soraluze

Garbiketa eta
mantenimendua



Sostoa, 16 ac behea

Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900

Mobila. 656 784 396

Hyundai SUV Gama. Zuk aukeratutakoa.



TUCSON 17.900€tik aurrera

SANTA FE 26.715€tik aurrera

KONA 13.990€tik aurrera

Dagoeneko zure mugak gainditu, handia den zerbaitekin bat egin eta intentsitatez bizi zaitezke. Eta, horrez gain, zelan egin nahi duzun aukeratu dezakezu Hyundairen SUV Gamak eskaintzen dizkizun aukeren artean. Puntakoena aukeratzekotan, KONA Berrira aukeratuko duzu. Estiloak, konektibitateak eta abangoardiako diseinuak inspiratuko zaitue edonora joanda ere. TUCSON Hyundairekin jokabide, diseinu eta prestazioen artean konbinaketa biribila erakusten duen modeloaren arrakastarekin gozatuko duzu. Eta, azkenik, handiena, SANTA FE Hyundai: sofistikazioa, espazioa eta luxua azken detaileraino. **Zuk aukeratutakoa da.**

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
[WWW.OARSO-CAR.COM](http://www.oarsocar.com)

ELGOIBAR
OIARTZUN
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

Olaso Polig., 17
BEASAIN
Errepide Nazionala, 1
943 80 40 54

943 74 14 80
IRUN
Juan Thalamos, 43
943 63 97 69



TUCSON Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6 - 7,5. SANTA FE Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 149-174. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,7 - 6,6. KONA Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 117-153. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,2 - 6,7.

PSP gomeindagarria Penintsulan eta Balearretan TUCSON 1.6 GDI 96,4 kW/131CV 4x2 BLUE2 ESSENCE (17.900€), SANTA FE 2.0 CRDI 150 CV (110,4kW) 4x2 ESSENCE 7 jarleku (26.715€) eta KONA 1.0 TGD 120CV (88,3kW) 4x2 ESSENCE (13.990€) autobentatzen. BEZ, garralao, matriculazio-zerga, sustapeneko deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-eskaintza barne. Hyundai-ra Aldatu. Plana aplikatu dabileke erabiliko auto baten truke, 6 hilabeterekin, Hyundai berri bat erosten duen bezeroaren titulartasunpean. Eskaintza hau aplikagarria da Críking Solución Flexible produktuarekin finantzatzen duten bezero partikularrentzat, Banco Cetelem S.A.U.-ren bitartez, 13.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin TUCSON-en kasuan, 16.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin SANTA FE-ren kasuan, eta 12.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin KONA-ren kasuan. Finantziazioa finantziera-erakundeak aztertu eta onartu beharko du. Eskaintza 2018/06/30era arte da baliozkoa. Irusten diren modeloak: TUCSON Style, SANTA FE Style eta KONA Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziatzaieri lotua. * Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien km mugarik gabeko 5 urteko bermeko konertziala Hyundai-ren sare ofizialak salduko Hyundai ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaporteearen baldintzen arabera. Kontsultatu itzazu eskaintza, mantenimendua eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es web-orrian.



**ETORKIZUNA
ERAIKIZ**

**Gipuzkoaren etorkizuna
guztion ardura da. Eraiki
dezagun guztion artean.
Aurrea hartzea da
horretarako modu
hoberena.**

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA
ERAIKIZ**
El futuro de Gipuzkoa

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz